

Herritarren ahotsak

Transmisioa ikasgelan

Balio etikoak



Gida didaktikoa

DBH 2

Badihardugu Elkarte

Otaola hiribidea, 1
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 12 17 75

Edukia

SARRERA	3
HELBURUAK	6
EDUKIAK.....	10
EDUKI MULTZOAK.....	10
GAI NAGUSIAK	13
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	24
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK	33
1. <i>Çai</i> : Trans izatea. LGTBIQ+	33
2. <i>Çai</i> : Patriarkatua eta genero-rolak. LGTBIQ+	45
3. <i>Çai</i> : Armairutik ateratzen. LGTBIQ+	52
4. <i>Çai</i> : Familia-eredu desberdinak. LGTBIQ+.....	60
5. <i>Çai</i> : Emakume musikariak. Genero-berdintasuna	68
6. <i>Çai</i> : Maitasun erromantikoaren mitoak. Genero-berdintasuna	77
7. <i>Çai</i> : Praktika feministak. Genero-berdintasuna	87
8. <i>Çai</i> : Mugimendu feministaren hastapenak Euskal Herrian. Historia	95
9. <i>Çai</i> : Klase-desberdintasunak. Historia.....	107
ESPAZIOEN ANTOLAKETA	116
DENBORALIZAZIOA	117
MATERIALAREN EGILEAK.....	119
BIBLIOGRAFIA	121

SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak www.ahotsak.eus proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz.

Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. DBHko **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgairako egin genituen lehen [proposamen pedagojikoak](#):



Ondoren, **Euskara eta Literatura** ikasgaiari heldu genion, eta 2016tik 2020ra bitartean DBHko eta Batxilergoko maila guztietarako [materiala](#) prestatu genuen:



laz, berriz, **Balio etikoak** irakasgaiari heldu genion, hasierako lan-lerrora bueltatuta. DBHko **1. mailarako** materiala gertatu genuen:



Orain arteko lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0. aukeratuta).

Balio etikoak ikasgaia

Balio etikoak ikasgairako ikasmateriala da, DBHko 2. mailarako. Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako prestatu genuen ikasmaterialarekin bateragarria da hau: osatu egiten du. Hori bai, DBHko 1. mailarako prestatutako materiala bezalaxe, hau ere **Balio etikoak** irakasgai berriari egokitutako ikasmateriala da, eta LOMCE legeak ekarritako aldaketak aintzat hartzen ditu.

9 proposamen pedagogiko prestatu ditugu. LGTBIQ+ kolektiboa, genero-berdintasuna eta diskriminazio-egoerak dira gai nagusiak, eta bi begirada jorratu ditugu: atzera begirakoa (historikoa) eta gaur egungoa.

Zer du berezitik gure ikasmaterialak?

Ahazkotasuna dauka abiapuntu gisa, edukiak jorratzeko garaian. Curriculumean ahazkotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahazkotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahazkotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita.

Herriaren jakinduria, **jakintza kolektiboa**. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Adituena zein herritar xeheena. Gazteak zein adinekoak. Hezur-haragizko pertsonen kontatutakoak dira proposamenen ardatza, eta horrek gertutasuna ematen du. Gainera, ikasmaterialak Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balioko du, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean.

Badira gai batzuk lehenetsuzkoak eta unibertsalak direnak. Betikoak eta betiko direnak. Balioak, errespetua, elkarbizitza, berdintasuna... horiek etxean erakusten dira neurri handi batean; bai lehen eta bai orain. Hori bai, ikastetxeetan ere **balio etikoak** gero eta indar handiagoa dute. Izan ere, ezinbestekoa da eskolak ikaslea eguneroko bizitzarako prestatzen laguntzea. Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen. Baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia

berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere **transmisioa** egiteko modu berriak aurkitu behar izan ditugu, **teknologia berriak** erabilita eta modu erakargarrian.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera emango ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek bihurtu behar dutelako lemazain, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. **Belaunaldien arteko zubi-lana** egingo dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta irakasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Diseinu erakargarria du. Eta berdintasunari buruzko lanketak egiteko baliagarria gertatzeaz gainera, berdintasuna aintzat hartzen du bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



Emakumeak
bertsotan



Nokaren galera
Oñatin



Trans izatea



LGTBIQ+
kolektiboa



Emakume
idazleak



Matxismoa
ezkutuan?

HELBURUAK

Gure ikasmateriala DBHko 2. mailako irakasleei eta ikasleei dago zuzendua, eta **Balio etikoak** irakasgaiarekin dago lotuta. DBHko 1. mailarako prestatutako ikasmateriala osatzen joateko balio du ([hementxe](#) deskargatu daiteke pdf-an).

EIMA 2.0. deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmateriala digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
 - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
 - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburuetako bat ahozkotasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota [Ahotsak.eus](#) proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola-curriculumetan (175/2007, 23/2009 eta 236/2015 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena:

“Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu” ([HEZIBERRI 2020: 236/2015 Dekretua](#))

Ahozkotasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskararen aberastasuna. Bestetik, kontatzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak

euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, besteen hitzei balioa emateko, denen iritzia entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean ([HEZIBERRI 2020: 236/2015ko Dekretua](#)) jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai oinarrizko zehar-kompetentziekin eta baita diziplina barneko kompetentziekin ere.

Oinarrizko zehar-kompetentziei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedek betetzen ditu (236/2015ko Dekretua): *Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia; Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia; Elkarbizitarako kompetentzia; Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia; Norbera izaten ikasteko kompetentzia*. Helburu horietako azpiatal guztiak izan ditugu kontuan ikasmaterial honetako gaiak eta jarduerak aukeratzeko orduan, eta bereziki hauek:

- 1- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia**, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.
 - *Hitzeko komunikazio jariokor, autonomo, sortzaile eta eraginkorrak egitea.*
 - *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguruan erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.*
- 2- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**. *Ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, ikasitakoa beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzeko eta norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.*
- 3- Elkarbizitarako kompetentzia**. *Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea, guztien eskubide eta betebeharrak errespetatuz.*

- *Norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteenak entzun eta kontuan hartzea.*
- *Taldean ikastea eta lan egitea, elkarlanean eta aniztasuna balioetsiz.*
- *Printzipio etikoak eta elkarbizitzaren oinarri diren arauak betetzea.*
- *Gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.*

4- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia, ideiak ekintza bihurtu daitezen.

5- Norbera izaten ikasteko kompetentzia, pertsonaren autorrealizatorako, etengabeko hobekuntzaren bidez.

- *Portaera soziala eta morala autorregulatzea.*
- *Nork bere buruaren gaineko kontzeptu eta estimu on eta errealistak edukitzea.*
- *Nork bere erabakiak modu autonomoan hartzea, betebeharez ere jabetuz.*

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan beharra dago DBHn «Balio etikoak» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu (236/2015 dekretua). Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Etapako helburuak honakoak lirateke:

1. Giza izaera onartzea dimentsio indibidualean zein sozialean, eta norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, dimentsio morala barne, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko.

2. Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko.

3. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak aitortutako eskubideak zein diren jakitea, bere egitea eta aintzat hartzea; unibertsalak, zatiezinak eta elkarri lotuak direla ikusi eta onartzea, eta irizpide moduan hartzea gizarte-gertaerei eta egoerei zein norbanakoen eta taldeen jarrereri buruzko iritziak emateko.

4. Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna babestea eta bidegabekeria eta diskriminazio oro arbuiatzea, batez ere generoarekin eta hark dakarren indarkeriarekin

lotutakoak, bai eta etnia, sinesmenak, desberdintasun pertsonalak eta sozialak, orientazio afektibo-sexuala oinarri dutenak eta beste edozein motatakoak ere.

5. Bizitza demokratikoa, politikan eta gizartean parte hartzea eta beste antolaketa modu batzuetan parte hartzea (lankidetzak, elkarteak, boluntarioak...) zer den jakitea eta aintzat hartzea, erreferentzia gaur egungo EAE eta haren egoera historikoa izanda, gure gizarte-ongizateko sistema mantendu eta hobetzeko ditugun betebeharrak gure gain hartuz, bidezko garapen jasangarriarekin konprometitutako bizi-proiektu bat eraikitzeko bidean.
6. Giza eskubideak urratzea dakarten egoerak identifikatzea eta aztertzea, direla indarkeria estrukturalak eragindakoak (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), dela terrorismoak eragindakoak, genero-indarkeriak eragindakoak, berdinen arteko indarkeriak eragindakoak... Bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna helburu duten ekintzak aintzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko.
7. Teoria etikoen berri izan eta haiek aztertzea, eta jakitea zein diren gaur egungo gizarte-gatazka eta gatazka moral nagusiak, jarrera kritikoa izateko komunikabideen bidez, Internet bidez eta beste gizarte-erakunde batzuen bidez (eskola, esaterako) helarazten diren eredu eta estereotipoekiko.
8. Nork bere diskurtso etikoa eratzea, hari dagokion irizpide moralarekin, eta etikaren eta moralaren berezko ezaugarriak eta elkarren arteko harremanak aztertzea, bizitzako egoerei inpartzialtasunez eta ikuspegi konstruktiboz heltzeko.
9. Justiziaren eta politikaren artean zer lotura dagoen jakitea, elkarren mendekoak direla aztertzea eta batak besteari informazioa nola ematen dioten jakitea, justizia eta bizitza demokratikoko funtsezko elementutzat aldarrikatzen duen herritar izan gaitzen sustatzeko.
10. Etika, zuzenbidea eta giza eskubideak lotuta daudela jabetzea, eta balio etikoek zer zeregin duten eta historian zehar zuzenbidean eta giza eskubideetan nola gauzatzen diren aztertzea, gure gizartean balio horiek zein mailatan betetzen diren ikusteko.
11. Etika eta zientzia eta teknologia lotuta daudela ohartzea, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak sortutako egoera gatazkatsuak planteatuz eta kritika eginez, haiei buruzko iritzirik moralak egiteko aukera ematen duten irizpide etikoak proposatzeko.

EDUKIAK

Balio etikoak irakasgaien DBHko 2. mailarako zehaztutako edukiekin bat dator gure ikasmateriala.

EDUKI MULTZOAK

1. eduki multzoa: eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziaztea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.)
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintza eta egindako lanak ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa garatzea (enpatia eta asertibotasuna).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.

- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. eduki multzoa: hausnarketa etikoa

- Etika eta morala.
- Garapen morala.
- Morala, askatasuna eta arrazionaltasuna.
- Balioak. Motak eta hierarkia. Posible al da baliorik gabeko bizitza?
- Arau etikoak zer diren.
- Proposamen etikoak historian zehar.
- Gatazka morala euskal gizartean.
- Garrantziko informazioa bilatzea eta hautatzea.
- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.
- Ekimen pertsonala, proposamenak egitean eta abian jartzean.

3. eduki multzoa: justizia eta politika

- Etika, politika eta justizia.
- Giza Eskubideak eta Zuzenbide Estatua.
- Printzipio demokratikoak, Giza Eskubideak eta legeetan nola zehazten diren. Konstituzioa eta Autonomia Estatutua. Pertsonen eskubideei buruzko EAEko araudia.
- Berdintasunari buruzko nazioarteko adierazpenak eta arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian.
- Ekimen pertsonala, proposamenak egitean eta abian jartzean.
- Garrantziko informazioa bilatzea eta hautatzea.

- Proposamen eta judizioak defendatzeko argudioak erabiltzea.
- Irizpide moralak eranstea.
- Demokrazia eta haren printzipioak estimatzea.
- Jarrera komunak sustatzea eta haietan parte hartzea.
- Zuzenbide-estatuaren legerian jasota dauden balio etikoak hautematea.
- Herritarren betebeharrak eranstea.
- Printzipio demokratikoak eranstea.

Balio etikoak ikasgaiarekin lotutako **9 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu DBHko 2. mailarako, betiere herritarren testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **hiru gai nagusitan** banatuta daude, eta atal bakoitzak **fitxa didaktikoak** ditu.

GAI NAQUSIAK

A. LGTBIQ+ KOLEKTIBOA

Lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen kolektiboaren (LGTBIQ+) bizipenak eta aldarrikapenak ezagutaraztea da proposamen honen asmoa. Orientazio afektibosexualaren aukerarekiko eta genero-nortasunarekiko errespetua sustatzea, azken batean. Heterosexualitatearen parametro klasikoak eta etiketak zalantzan jartzeko eta pentsarazteko bidea egitea. Kolektibo horrekin lotutako gizarte-estereotipoak eta diskriminazio-egoerak ezagutzeko eta horien gainean hausnartzeko bideak eskaintzen ditugu.



Gaiak:

- Trans izatea: esperientziak
- Patriarkatua eta genero-rolak
- Armairutik ateratzen: bizipenak
- Familia-eredu desberdinak

B. GENERO-BERDINTASUNA GAUR EGUN

Feministak garela esatea gero eta hobeto ikusita dago, baina zer da feminismoa? Eta genero-berdintasuna lortzeko asko falta al da? Gai horiei buruz hausnartu, zapalkuntza-egoerak identifikatu eta diskriminazio ororen kontrako jarrera garatzea oso da

garrantzitsua. Horixe da atal honetako proposamenen helburu nagusia: gaur egun generoaren alorrean dauden hutsuneak ezagutaraztea eta errealitateaz jabetzeko tresnak ematea. Benetako egoerak aztertu eta kritikoki ebaluatzeko baliabideak eskaintzen ditugu.

**Gaiak:**

- Emakume musikariak: esperientziak
- Maitasun erromantikoaren mitoak
- Praktika feministak

C. DISKRIMINAZIOA HISTORIAN ZEHAR

Diskriminazio-egoera batzuk jorratu ditugu atal honetan, ikuspegi historiko batetik. Hala, sasoi bateko berdintasunik eza agerian geratzen da gizarteko hainbat esparrutan. Alde batetik, genero-berdintasunari erreparatu diogu: Euskal Herriko feminismoen historia ezagutuko dugu, nondik gatozen konturatzeko eta historian zehar eskuratutako lorpenez jabetzeko. Bestetik, gizarteko mailaketa ekonomikoan jarriko dugu arreta. Beti egon izan dira klase-desberdintasunak gure gizartean –orain ere badaude–, baina, atzera begiratuta, duela hamarkada gutxi bereizketak zein handiak ziren konturatuko gara.

**Gaiak:**

- Mugimendu feministaren hastapenak Euskal Herrian
- Klase-desberdintasunak

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

1. Trans izatea: esperientziak (LGTBIQ+)

Azken urteetan lan handia egin da trans pertsonen errealitateak ezagutarazteko, besteak beste, Naizen bezalako elkarteei esker. Bideo-proposamen honek hainbat kontzeptu argitzeko balio du: zer da transexuala eta zer transgeneroa? Gauza bera al dira? Izan ere, trans izateko modu asko daude. Zer da zis eta zer trans? Zer aldarrikatzen dute trans pertsonak? Zer oztopo dituzte normaltasunez bizi ahal izateko? Bi neska trans elkarriketatu ditugu, Rina Cabeza eta Yuri Paramos, eta beren esperientzia kontatu digute.



- Landuko diren kontzeptuak: diskriminazioa, eskubide-urraketak, trans, zis, transexualitatea, transgeneroa, LGTBIQ+ kolektiboa, homosexualitatea, heterosexualitatea
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Genero-nortasun eta orientazio afektibo-sexual guztiekiko errespetua erakustea
 - Sexu- eta genero-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

2. Patriarkatua eta genero-rolak (LGTBIQ+)

‘Homosexual’ kontzeptua sortu zenean agertu zen ‘heterosexual’ kontzeptua. Aurretik ez zegoen izendapen beharrik, gizartearen begientzat sexu-lehentasun bakarra baitzen zilegi: beste generoa gustatzea, alegia. Gainera, bi genero bakarrik zeuden aukeran, emakumea eta gizona (‘genero ez-bitarra’ izateko aukera pentsaezina zen artean). Adituen testigantzen bitartez, patriarkatuak sortutako genero-rolak jorratu ditugu bideo-proposamen honetan, eta baita beste kontzeptu garrantzitsu bat ere: ‘heteroaraua’. LGTBIQ+ kolektibotik eta feminisमतik etengabe gaitzesten dituzte heteroarauak dakartzan zapalkuntzak, baina zer da heteroaraua? Zer hartzen du bere baitan? Ez baita sexu-lehentasunera mugatzen: gizarteko alor guztietan dauka eragina.



- Landuko diren kontzeptuak: genero-rolak, patriarkatua, homosexualitatea, heterosexualitatea, gay, lesbiana, heteroaraua, heteropatriarkatua, LGTBIQ+ kolektiboa, feminismoa, diskriminazioa, berdintasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Genero-nortasun eta orientazio afektibo-sexual guztiekiko errespetua erakustea
 - Sexu- eta genero-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

3. Armairutik ateratzen: bizipenak (LGTBIQ+)

Homosexualitatea publikoki agertzeari “armairutik ateratzea” esaten zaio hizkera informalean. Baliteke urte batzuk barru esapide horrek zentzurik ez izatea, baina oraindik orain sexu-lehentasun batzuk ez daude guztiz normalizatuta. Printzipioz, heterosexuala izatea hartzen da normaltzat, eta homosexualak/bisexualak beren sexu-lehentasunaren berri eman behar izaten dute. Sarritan nerabezaroa izaten da pauso hori emateko sasoia, eta proposamen honek horri buruz naturaltasunez hitz egiteko aukera ematen du. Izan ere, hainbat pertsona homosexualen esperientziak eta iritziak ezagutarazten ditugu; adibidez, lesbianismoaren ikuspegi hipersexualizatuak eragindako egoerak.



- Landuko diren kontzeptuak: armairutik ateratzea, homosexualitatea, heterosexualitatea, gay, lesbiana, heteroaraua, LGTBIQ+ kolektiboa, diskriminazioa, hipersexualizazioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Genero-nortasun eta orientazio afektibo-sexual guztiekiko errespetua erakustea
 - Sexu- eta genero-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

4. Familia-eredu desberdinak (LGTBIQ+)

Familia-eredua oso hertsia izan da denbora askoan: senar-emazteak eta umeak. Azken urteetan gero eta familia-eredu gehiago ari gara ezagutzen: ama bakarra, bi ama, bi aita, ume adoptatuak, banandutako gurasoak... Familia-ereduei buruzko bideo-proposamena prestatu dugu, familiak nolakoak izan daitezkeen hausnartzeko eta “arautik” ateratzeak zer esan nahi duen konturatzeko. Adibidez, umeak izatea beharrezkoa al da familia sortzeko? Hainbat elkarrizketa egin ditugu familia-eredu diferenteak ezagutzeko eta era askotako bizipenak jasotzeko.



- Landuko diren kontzeptuak: familia-eredua, gizarte-eredua, harrera-familia, diskriminazioa, heteroaraua, aniztasuna, biologikoa, adoptatua, intseminazioa, dibortzioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Genero-nortasun eta orientazio afektibo-sexual guztiekiko errespetua erakustea
 - Diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Familia-eredu guztiak ontzat hartzea
 - Indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

5. Emakume musikariak (Gaur egun)

Gero eta gehiago dira emakume musikariak: azken hamarkadetan neska asko igo da oholtza gainera. Hala ere, oso mundu maskulinoa izaten jarraitzen du. Proposamen honen helburua ez da begirada historiko bat eskaintzea, begirada gaur egungo egoeran jartzea baino: aukera- eta tratamendu-berdintasuna ote dago euskal musikagintzan orain? Hainbat emakume musikari elkarrizketatu ditugu (Ainara Ortega jazz abeslaria, Maixa Lizarribar trikitilaria eta Miren Aranguren rock abeslaria), haien iritziak jasotzeko: oholtza gainean nola sentitzen diren jakiteko eta gainditu behar izan dituzten oztopoak zein diren ezagutzeko. Bidenabar, emakume musikariek osatutako gaur egungo musika-talde batzuk ezagutzeko parada ere izango dugu, eta ikasleen sormena aktibatzeke proposamenak ere egingo ditugu.



- Landuko diren kontzeptuak: euskal musikagintza, oholtza, abeslariak, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Emakume musikarien bizipenak eta esperientziak ezagutzeko interesa
 - Katak eta musikagintza genero-ikuspegitik lantzeko irrika
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

6. Maitasun erromantikoaren mitoak (Gaur egun)

Sasoi batean ohikoak ziren hitzartutako ezkontzak: komeni zenarekin ezkontzea. Orain, berriz, norekin elkartu erabaki dezakegunez, maitasunezko harremanen garaian bizi garela esan daiteke. Hori bai, "betiko maitasunaren" ideiak indar handia dauka. Pertsona bakoitzak bere "laranja erdia" duela pentsatzera eta, agertzen ez bada, zoritxarrekoak sentitzera ere iritsi gaitzke, ezingo ditugulako ustezko zoriontasunera eramango gaituzten pausoak eman: bikotea-etxea-umeak. Zein dira eta nondik datoz maitasun erromantikoaren mitoak? Nolakoak dira gaur egungo nerabeek desiratzen dituzten bikote-harremanak? Zer eredu dituzte? Proposamen honek gai horri buruz hausnartzera garamatza, hainbat pertsonaren testigantzen bidez. Telebistako, komunikabideetako eta sare sozialetako ereduak ere aztertuko ditugu.



- Landuko diren kontzeptuak: maitasun erromantikoa, "Disney maitasuna", bikote-harremanak, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak, botere-harremanak
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Bikote-harremanei buruz hausnartzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Emakumea gutxiestea eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

7. Praktika feministak (Gaur egun)

‘Feminismoa’ eta ‘feminista’ kontzeptuak asko erabiltzen dira gaur egun. Alabaina, ba al dakigu zer esan nahi duten? Feminismoa ulertzeko hainbat modu daude, eta hainbat lan-lerro edo praktika, feminismoaren barruan. Are gehiago: badaude ideia kontrajarriak eta eztabaidak ere. Horregatik, feminismoez hitz egingo dugu, pluralean. Adibidez: zer da transfeminismoa? Eta feminismo dekoloniala? Feminismoei buruz hitz egingo digute hainbat militante feministak: eurentzat feminismoa zer den eta zein diren euren borroak. Eztabaida eraikitzaileak eta sormenarekin lotutako jarduerak proposatuko ditugu.

- Landuko diren kontzeptuak: feminismoa, praktika feministak, dekoloniala, transfeminismoa, genero-diskriminazioa, berdintasuna, parekidetasuna, ahalduntzea, matxismoa, estereotipoak
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:



- Feminismoari buruz hausnartzeko interesa
- Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
- Emakumea gutxiestea eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
- Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
- Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

8. Mugimendu feministaren hastapenak Euskal Herrian (Historia)

Feminismoa gaizki ikusia egon da, duela oso urte gutxira arte. 70eko hamarkadatik hona ikuspegia asko aldatu da. Proposamen honen bitartez Euskal Herrian borroka feministek zer ibilbide egin duten emango dugu ezagutzera: mugimenduaren hastapenak, hain zuzen ere. Zein zen emakumearen egoera frankismo garaian? Zer eskatzen zuten orduan? Zeintzuk izan ziren 70eko hamarkadako borroka nagusiak? Hainbat militante feminista elkarrizketatu ditugu, eta haien testigantzekin osatu dugu bideoa. Ezinbestekoa da nondik gatozen jakitea, nora joan nahi dugun jakiteko.



- Landuko diren kontzeptuak: feminismoa, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, militantzia
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Historia hurbila ezagutzeko interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Emakumea gutxiestea eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
 - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea
 - Emakumeen ahalduntzerako tresnak ezagutzeko eta erabiltzeko gogoia

9. Klase-desberdintasunak (Historia)

Aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunei erreparatuko diegu, iragan hurbilera begira jarrita. Duela hamarkada batzuk klase-desberdintasunak orain baino handiagoak ziren. Hiru maila erabiltzen zituzten herritarrak sailkatzeko: goi-klasea (aberatsak, 1. maila), klase ertaina (2. maila) eta behe-klasea (pobreak, 3. maila). Hileta elizkizunak desberdinak ziren, hildakoaren baliabide ekonomikoen arabera, eta eguneroko bizitzan ere igartzen zen bereizketa hori. Adibidez, trenetan hiru bagoi klase zeuden, eta ikastetxe batzuetan ere bereizi egiten zituzten aberatsak eta pobreak. Garai hartako diskriminazio-egoera batzuk ezagutuko ditugu, adineko aitona-amonen ahotik. Gizartea nola aldatu den hausnartzeko balio digu proposamen honek, eta baita gaur egungo egoera aztertzeke ere. Ba al dago klase-desberdintasunik gaur egun? Zenbat pertsona bizi dira pobrezian eta zer egiten da haiei laguntzeko? Etikari eta moralari buruz ere jardungo dugu.



- Landuko diren kontzeptuak: diskriminazioa, berdintasuna, gizarte-eredua, pobrezia, aberastasuna, goi-klasea, klase ertaina, behe-klasea
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
 - Historia hurbila ezagutzeko eta gaur egungo aztertzeke interesa
 - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
 - Diskriminazio ororekin kritiko agertzea
 - Zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

NOIZ ETA NOLA ERABILI

• *NOIZ erabili:*

Balio etikoak irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 2. mailan. Irakasleak erabakiko du noiz erabili eta jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaini.

• *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <https://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurki dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- Balio etikoak (ikasgaia)
- Genero berdintasuna (gaia)

-Motak. Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.

-Proiektuak. Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa guztiak agertuko zaizkigu.

-Ikasgaiak. Ikasgaien zerrendan, nahi duena aukeratu dezake irakasleak. Adibidez, “Balio etikoak”-en klik eginez gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio.

-Gaiak. Gaien zerrendan, gai bat aukeratu dezake irakasleak. “Genero-berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio.



-Mailak. Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan une oro. Ikasmateriala erabilita sortutako ekoizpenak partekatzeak aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatzen ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea ematen dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatzen ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, hainbat bitarteko erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatu nahi dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harikaldu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatzen dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinaren arteko interakzioa sustatzen da, benetako ideien elkartrukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzen dira, talde-lanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako bederatzi bideo dira. DBHko 2. mailan *Balio etikoak* irakasgaiaren lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki Ahotsak.eus dute oinarrian; gazteen zein adinekoen testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

A. “Proposamen pedagogikoa” atala:

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta egongo dira proposamen pedagogikoak. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, Dena aprobetxatzen zen fitxan hauek datoz:

- *Garapen iraunkorraren aldeko joera*
- *Ondasun komunak errespetatzeko eta zaintzeko ohitura*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta hiru alditan banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:

- Aurre-ezagutzak aktibatatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Iragina eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (talde-dinamikak).

- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:
 - *"Testigantza bila"*. Ahotsak.eus webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.
 - *"Zu zeu elkarriketatzailer"*. Ikasleek elkarriketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.
 - *"Hitzen arrastoan"*. Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa besteak beste, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...
 - *"Gaur egunera begira"*. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.
 - *"Historia egiten"*. Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.
 - *"Mundu zabalean"*. Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.
 - *"Eman iritzia"*. Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.
 - *"Ika-mika"*. Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertzea eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.
 - *"Bestearen azalean"*. Besteen azalean jartzea eta egoerak asmatzea, rol-jokoen bidez enpatia lantzeko.
 - *"Sormena lagun"*. Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia, abestiak, bideoak...) eta *brainstorming* edo ideia ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.
 - *"Jolastan"*. Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei haien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlanak, eztabaida, ozenki irakurtzea, ikuskizuna...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoekin jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.

- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

Ebaluazio-irizpideak. Fitxa guztietan jartzen ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, [*Santa ageda eskoriatzan: nesken parte-hartzea*](#) bideoarekin lotutakoa.

Hauek izango lirarteke gaiarekin lotutako ebaluazio-irizpide orokorrak, kasuan-kasuan moldatu beharrekoak:

Ikasleen autoebaluazioa. Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu beharko du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

Edukiari buruz

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sententzia duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

Ikaste-prozesuari buruz

- Ea bideoa eta testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.
- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

Bere komunikaziorako gaitasunei buruz

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.
- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.
- Ea pozik dagoen ekoiztako lanarekin.

Talde-lanari buruz

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

Irakaslearen ebaluazioa. Irakasleak ikasleak ebaluatzeko, kontuan har ditzakeen irizpideetako batzuk:

- Ea bideoetako testigantzen garrantziaz jabetu den eta interesa erakutsi duen.
- Ea lehenaldia eta orainaldia lotzeko eta bere ikuspegia aberasteko gogoa eta gaitasuna izan dituen.
- Ea enpatiarik erakutsi duen bideoko pertsonekin.
- Ea etika eta morala bereizten dituen, eta hausnarketa etikoaren garrantzia balioesten duen.
- Ea etika, politika eta justizia kontzeptuen arteko erlazioak ezagutzen dituen, eta termino horiek aztertzen eta definitzen dituen.
- Ea diskurtso sozial eta politiko bat lantzen duen, ongi oinarritua, kritikoa eta gizarte demokratikoaren balioekin konprometitua.
- Ea feminismoaren historia eta historian zehar eskuratutako lorpenak ezagutzen dituen.
- Ea emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko jarrera argiak adierazten dituen, haien orientazio afektibo-sexuala edozein izanik ere.

- Ea hainbat eremutan (publizitatea, informazioa, txisteak, eskola eta abar) emakumeari edo LGTBIQ+ kolektikoari buruz ageri diren gizarte-estereotipoak biltzen eta aztertzen dituen.
- Ea emakumea edo LGTBIQ+ kolektiboko kideak diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzen dituen.
- Ea kultura-elementuen (estereotipoak, rolak...) eta emakumeen edo LGTBIQ+ kolektiboaren diskriminazioaren arteko lotura azaltzen duen.
- Ea sexu-diskriminazioaren eta indarkeriaren aurkako jardunak proposatzen dituen.
- Ea LGTBIQ+ kolektiboari buruzko informazioa bildu duen eta haien aldarrikapenak barneratu dituen.
- Ea ikaskideekin eztabaidatuz gogoeta egin duen LGTBIQ+ kolektiboaren egoeraren inguruan eta eskolan zein gizartean duen ikusgaitasunaren inguruan.
- Ea LGTBIQ+ kolektiboa gutxiestea, diskriminatzea eta/edo haren aurkako indarkeria sustatzea eta justifikatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak gaitzesten dituen.
- Ea Emakunde erakundearen, Berdindu zerbitzuaren eta berdintasuna sustatzeko beste erakundeen ezaugarriak, funtzioak eta programak ezagutzen dituen.
- Ea ikerketan informazioa lortzeko gaitasuna erakutsi duen, iturriak bilatzeko orduan.
- Ea informazio hori bere gogoetak eta ikuspuntua egituratzeko edo eraldatzeko erabili duen.
- Ea talde-lanean ondo moldatu den, berdinen arteko harremanean iradokizunak eginez eta ikaskideen iritziak errespetatuz.
- Ea bere iritziak eta hausnarketak partekatu dituen, horretarako txanda errespetatuta.
- Ea ahozko ekoizpean ondo moldatu den, komunikatzeko gai den.

B. Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaiari kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.
- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren qarapena](#) fitxa.

PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

1. *Gaia:* **Trans izatea.** LGTBIQ+

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/trans-izatea>



Bideoa ikusi aurretik

Bi neska transen esperientziak ezagutuko ditugu. Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Ezagutzen al duzue pertsona transik?
- Zer da trans izatea? Nola esplikatuko zenukete?
- Zer diferentzia dago transexual eta transgenero hitzen artean? Sexua eta generoa aldatzea bi gauza desberdin al dira?
- Genero-nortasuna eta sexu-orientazioa nahastu egiten dira batzuetan. Zuek argi bereizten al dituzue?
- Zer arazo izan ditzakete pertsona transek gure gizartean? Onartuta al daude?


Neska eta mutila Sexua vs Generoa

- **Sexua.** Jaiotzean ipintzen digutena, gure genitalak kontuan hartuta: Neska ala Mutila. (Sexua ezaugarri biologikoa dela diote batzuek, zerbait zientifikoa. Beste batzuentzat, ordea, sexua ere eraikuntza soziala da: gizakiak erabakitako sinplifikazioa. Izan ere, naturak ez ditu bi sexu soilik sortzen: adibidez, ezaugarri intersexualak dituzten pertsonak ezin dira neska/mutil binomio horretan kokatu, baina ez zaie sailkapenean tokirik egiten).

- **Generoa.** Eraikuntza soziala da: gizarteak sexu bakoitzari (neska eta mutil) egozten dizkion ideia, espektatiba eta ezaugarriak (adibidez, neskak makilatu egiten dira eta gona daramate).

- **Genero-nortasuna.** Pertsona bakoitzaren nortasuna, generoarekin lotuta: mutila, neska ala genero ez-bitarra den.

- **Transgeneroak (trans).** Jaiotzean ipini dieten sexua beren genero-nortasunarekin bat ez datorrenean.
- **Zisgeneroak (zis).** Jaiotzean ipini dieten sexua beren genero-nortasunarekin bat datorrenean. Gizartearen gehiengoa.
- **Genero ez-bitarra.** Mutil eta neska kategoriekin identifikatzen ez direnak.



Iturria: naizen.eus

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, hormonatzea zer den, 'ziberbulling' terminoa, azkoitierako eta oñatierako hitzak...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Garbiago al daukazue orain zer den trans izatea?
- Zer transmititzen dizuete bi neska hauek (ziurtasuna, hurbiltasuna, normaltasuna...)?
- Rinak aipatzen du batzuek 'marikoi' hitza modu despektiboan erabiltzen dutela oraindik ere. Zuen inguruan ezagutzen al duzue horrelako jarrerarik?
- Badaude homofoboak ez diren pertsona transfoboak, Yurik azaltzen duen moduan: homosexualitatea onartzen dutenak, baina transgeneroa izatea ez. Zergatik izan daiteke?
- Etikako irakasleak infernura joango zela esan zion Rinari. Eman zuen iritzia.
- Yuri neska trans lesbiana da. Zer iruditzen zaizkizue trans diren ala ez jakiteko egin zizkieten galderak? Zuek zer jostailurekin jolasten zineten txikitan?

Yurik nerabe transei eta beren gurasoei arreta eskaintzen dien elkarte bat aipatzen du: [Naizen](#) dauka izena. Naizen elkartearen webgunea bisitatu, eta beste kasu batzuk ezagutu ditzakegu. ETB-1eko *Ur handitan* saioko ['Transexualitatea' eta 'Ez bitarrak' erreportajeak](#) ere ikus daitezke, trans eta pertsona ez-bitarren kasu gehiago ezagutzeko. LGTBIQ+ kolektiboari buruz prestatu genuen [bideoa](#) ere ikus daiteke.

Trans izateko modu asko daude: batzuek ez daude gustura euren itxura fisikoarekin, eta hormonak hartzea erabakitzen dute, itxura aldatzeko. Hori da Yuriren eta Rinaren kasua. Beste batzuek, ordea, ez dute hormonatu nahi. Ebakuntza egitea ere biek erabaki dute, baina trans asko ez dira operatzen. [Josebe Iturrioz](#) feministak, berriz, maskulinizatzeko prozesu bat egin du, hormonak hartuta, baina ez da identifikatuta sentitzen bi generoetako batekin ere. Generoen sistema bitarra irauli egin behar dela uste du eta bere burua transgenero bezala definitzen du.

3. Trans pertsonen aldarrikapenei buruz hitz egin dezakegu eta iritzi-trukea egin:

a) Gizartearen onarpena, transfobiarik gabe. Langabezia-tasa altua da transen artean (Yuriren testigantza). Eraso transfoboak ugariak dira. Depresio- eta suizidio-tasak altuak dira (ikus Yuriren azalpena horri buruz); Kattalin Minerren *Moio* liburua ere irakur daiteke.



b) Gaixotasun bezala ez tratatzea eskatzen dute, psikiatregana edo psikologoengana ez bideratzea. Duela oso gutxira arte psikologoek “Transen testa” egiten zieten, neska ala mutila ziren erabakitzeke.

c) Hormonak hartu nahi dituztenei bidea erraztea, baina hartu nahi ez dituztenak hormonak hartzera ez derrigortzea: NAN agirian sexua aldatu ahal izateko, bi urtez hormonak hartzera behartzen dituzte. Hormonatzea prozesu gogorra izan daiteke, gorabehera asko dakartzana (hemen Rinak hormonon eraginari buruz dioena). Duela urte batzuk ebakuntza egitera ere derrigortzen zituzten (gainera, emakume transei aluaren sakonera neurtzen zieten, ebakuntzaren ostean; Rinak azaltzen du pasarte honetan, 03:00 minutuan).

d) NAN agirian izena aldatzeko ere arazoak izaten dituzte (izena aldatzeko prozesua kontatzen dute Yurik eta Rinak).

e) Komunikabideetan ere ez da mezu zuzena zabaltzen: sexu-aldaketa bezala erakusten da prozesua, eta kasu askotan ez da sexu-aldaketarik izaten (ikus Rinak dioena). Horregatik, batzuk kritikoak dira `transexual' hitzarekin (Yurik, adibidez, ez du kontzeptu hori maite; Rinak, berriz, normaltasunez erabiltzen du).

Zalantzak sortzen baldin badira, onena Yuriri edo Rinari galdetzea izango da: sare sozialetan oso aktibo dabilta biak ere eta seguruenik gustura erantzungo diete ikasleen galderei. Yuri eta Rina trans pertsonen errealitateak ezagutarazteko hitzaldiak ematen ari dira, besteak beste, ikastetxeetan.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Bestearen azalean".* Antzezlan txikiak egitea proposatuko diegu ikasleei. Gatazka bat izango da antzezlanaren erdigunea, zapalkuntza bat. Zapalkuntza-egoerak transfobiarekin, homofobiarekin, arrazakeriarekin edo matxismoarekin lotuta egon daitezke.

Hona hemen benetan gertatutako adibide batzuk (ikasleek beste egoera batzuk asmatu ditzakete):

-Maria lan-elkarrizketa batera joan da. Elkarrizketatzaileak emakume transa dela ikusi du, eta esan dio: "Ez duzu bila gabiltzan profila".

-Mikel mutil transa da, eta medikuak esan dio: "Kontuan izan ez zarela sekula ehuneko ehun gizona izango".

-Yuri neska transa da, eta mozkortuta dagoen mutil bat oihuka hasi da tabernan, bera seinalatzen: "Honek pitoa dauka! Honek pitoa dauka!".

Gure proposamena inprobisazioa lantzea da. Taldetxoak egin, rolak banatu eta egoerak emango dizkiegu, eta elkarrizketak inprobisatu egingo dituzte. Hori bai, inprobisazioak bi zati izango ditu. Lehenengoan, amaiera beti bera izango da: protagonista zapuztuta geratuko da, zapalkuntzaren eraginez. Momentu horretan, ikusleek (gelakideek) egoerari buelta emateko proposamenak egingo dituzte. Eta, orduan, inprobisazioaren bigarren zatia etorriko da, aurrekoak baino bukaera hobea izango duena.

Bigarren zatirako proposamen posibleak:

-Mariak elkarrizketatzaileari pentsatzen duena esango dio, eta duintasunez aterako da elkarrizketatik.

-Mikelek medikuari pentsatzen duena esango dio, eta duintasunez aterako da medikuaren kontsultatik.

-Yurik bere lagunaren babesa izango du, eta guztiek batera mutil mozkorrari aurre egingo diote, hura tabernatik joatea lortu arte.


Inprobisazio-saioen ondoren, egokitu zaizkien roletan nola sentitu diren partekatu dezakete, ea bestearen azalean ipintzea lortu duten.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak soziologo bihurtuko dira. Gizartean pertsona transei buruz dagoen ezagutza zenbatekoa den jakitea izango da helburua. Horretarako, guztien artean inkesta bat prestatuko dute eta hainbat herritarri egingo diete inkesta hori.

Inkesta-ereduak erakutsiko zaizkie. Inkestarako zer galdera izan daitezkeen interesgarriak pentsatuko dute, gero jasotako emaitzak esanguratsuak izan daitezzen (adibidez, ehuneko X-ek ez du pertsona transik ezagutzen, ehuneko X-ek ez daki transexualitatea zer den, ehuneko X-ek ez daki trans pertsonen aldarrikapenak zein diren, ehuneko X-ek uste du transak okerreko gorputzean jaiotzeak, ehuneko X-ek ez ditu transexual eta transgenero hitzen esanahiak ezagutzen...). Inkesta erantzun dutenen adin-tartea ere jar daiteke, interesgarritzat jotzen bada.

Talde txikietan banatuta egingo dituzte inkestak, kalean, modu anonimoan (bi aldeentzat erosoagoa izan dadin). Ondoren, guztien emaitzak batuko dituzte (adibidez, gdoc dokumentu batean partekatu). Talde bakoitzak inkestaren zati bateko erantzunak azter ditzake, emaitzekin ehunekoak atera eta grafikoak egin. Eta gero gelakideekin partekatu, ozenki irakurriz.

Bukaerako lana haxe litzateke: ondorioak ateratzea, emaitza guztiak kontuan izanda . Guztiek elkarrekin egin dezakete.


- 
- Ezagutza nahikoa al dago herrian pertsona transen inguruan?
 - Aldatzen al da ezagutza adinaren arabera ?
 - Zer egin daiteke errealitate hori ezagutarazteko?

Egindako lana adierazgarria baldin bada, herrian zabaldu daiteke (tokiko hedabideen bitartez, adibidez).

Beste aukera bat: inkestan intersexualitateari eta genero ez-bitarrari buruz ere galdetzea. Are ezezagunagoak izan daitezke.

- *"Gaur egunera begira"*. Zein da pertsona transen gaur egungo egoera? Noiz eta zergatik agertzen dira hedabideetan? Bilatu pertsona transei buruzko albisteak sarean, gertaera positiboak zein negatiboak. Adibidez, badira erditu diren gizon transak (*Ruben Castoren adibidea*), Oscar sarietara iritsi diren aktore transak (*Daniela Vega aktorearen kasua*), baina transen kontrako erasoak ere hortxe daude.

Ikasle bakoitzak albiste, artikulu edo gertaera bat eramango du gelara, eta gelakideekin partekatu:

- 
- Nor da protagonista?
 - Zer gertatu da? Zer kontatzen du?
 - Zergatik aukeratu dut?
 - Nire iritzia

Galderen eta iritzi-trukearen txanda etorriko da aurkezpen bakoitzaren ondoren.

- *"Eman iritzia"*. Espainiako Transexualitate Legearen zirriborroaren harira eztabaida sortu zen 2021 hasieran. Lege-proposamen horretako puntu polemikoena 'genero-autodeterminazioa' izan zen (azkenean onartu ez zen terminoa). Lege-aldaketaren ondorioz, trans pertsonak erregistroan sexua aldatzeko aukera izango lukete, mediku tratamendurik edo txosten psikologikorik aurkeztu beharrik gabe.

Feminismoaren sektore batzuetan ez zuten begi onez ikusi lege-aldaketa hori, berdintasun-legeetan atzera egitea dela iritzita. Zera zioten: arriskutsua dela, edonork izan dezakeelako emakume izateko aukera. Gizonek lege hori asmo txarrekin balia dezaketela, izena eta sexua aldatu, emakumeen kontra egiteko. Hona hemen ipini zituzten adibide batzuk:

- Lege-epaiez libratu daitezke, genero-indarkeria kasuetan.
- "Emakumeen tokietara" sar daitezke eta haiei eraso egin (kartzeletan, komunetan, aldageletan eta abarretan).
- Emakumeei zuzendutako dirulaguntzak jaso ditzakete.
- Emakumeen kirolean abantaila izan dezakete: marka hobekak lor ditzakete, indartsuagoak direlako.

Aurrera jarraitu aurretik, argudio horiei buruzko iritzi-trukea egingo dugu. Ba al dute oinarririk? Ikusten al duzue horrelakorik gertatzeko arriskurik?

Euskal Herriko mugimendu feministako elkarte gehienak ez daude ados argudio horiekin eta transfobotzat dituzte. Trans Legearen alde agertu ziren. Hona hemen aipu batzuk:



Kattalin Miner militante feminista

- “Twitterren lata ematen duten lau izanda ere, gorroto diskurtsoak dira eta mina eragiten dute”.
- “Perbertsoaren perbertsoa da feminismoaren izenean pertsona transen eskubideak urratzea eskatzea”.
- “Esaten dute transexualitatearen existentzia hutsak emakumeak ezabatuko dituela, eta nola errazagoa den ulertzea askotan bide motzeko argumentazio bat konplikatua zaiguna baino, jende askok sinetsi egiten du hori, ze sentitzen da atakatua, baina ez duelako ulertzen edo, besterik gabe, gorroto diskurtso bat daukalako”.
- “Konfiantza dut gure herriko mugimendu feministan eta herri honetako politiketan. Guk EAEn badaukagu antzeko lege bat eta Nafarroan beste bat, eta hemen ez da emakumerik ezabatu, ez?”.
- “Gehiengo orokorra transen eskubideen alde dagoela uste dut, eta konturatzen dela pertsona trans bati bere identitatea autodeterminatzeko aukera emateak ez duela esan nahi komunetan bortxatuko gaituztenik”.



Josebe Iturrioz militante feminista

- “Transexualitatearen Legea izango da lehenengo legea Espainian, onartzen bada, 'autodeterminazio' hitza onartuko duena. 'Genero-autodeterminazioa'. Eta hortxe dago gatazka. Horrek, nire ustez, lotura zuzena dauka beste logika batekin: lurraldeak ere ezin dira autodeterminatu”.
- “Transfobia hutsa da hor atzean dagoena. Argumentuak oso absurdoak dira”.
- “Arazoa dute transexualitate femeninoarekin, esaten dutelako gizonezko kamuflatuak direla, ia nortasun bat lapurtzen ari balira bezala, ez? Esentzializatzen dituzte transexualen gorputzak bortxatzaile bezala eta erasotzaile bezala”.
- “Gorputz transexuala ez da sekula gorputz zaugarri bezala irakurria izaten: transexuala ez da inoiz jipoitua izango, bortxatua izango... eta alderantziz da. Adibidez, kartzelarena: 'Nola sartu emakume transexual bat kartzelan beste emakumeekin? Bortxatu egingo ditu'. Aizue, 'feministak', zer pentsatzen duzue gertatzen zaiela transexual femeninoei gizonezkoen karteletan? Benetan esplikatu behar zaie? Nortzuk dira bortxatuak? Nortzuk dira hor gorputz zaugarrienak?”.
- “Generoa autodeterminatzeko eskubideak ez du esan nahi egun batean Manoli izango naizela, hurrengoan Aitor, hurrengoan... Ez da joko bat; *peajea* askoz handiagoa da”.
- “Ni, adibidez, neure burua transgender bezala definitzen hasi nintzenean, eta, denbora batez, urte eta erdiz edo holakoren bat, hormonak hartu nituenean, hor gatazka bat sortu zen eta askorentzat ez naiz zilegia feminismoarentzat. Nik pertsonalki bizi izan dut gatazka horren erradikalizazioa eta biolentzia, oso-oso gertutik”.

Yurik eta Rinak ere eman zuten iritzia feminismoaren barruan piztu den eztabaida horri buruz:



Yuri Paramos neska transa

- “Erresuma Batuan hasi zen TERF mugimendua: pertsona transak kanpoan uzten dituen feminismo erradikala. Eta asko zabaldu da. Esaten dute emakume transok ez dugula lekurik feminismoan, ez dugula euren berdina sufritu, ez gara benetako emakumeak, gizonaren pribilegioak dauzkagula...”.
- “Feminista naiz, baina beldurra daukat talde feminista batera sartzeko, mugimendu berri horregatik. Esaten dut: 'Joe, oraintxe ez naiz seguru sentitzen talde feministetan ere'. Ez dakit onartuko nauten ala ez”.
- “Ikusten duzu zuretzat espazio seguru bat izan beharko zena ere zure kontra dagoela: zure kontra daude ultrakatolikoak, ultraeskuindarrak... eta feministak ere bai, printzipioz hain ideia kontrajarriak dituztenak. Etsai komun bat baldin badago, erraza da horren kontrako diskurtso bat sortzea”.
- “Niretzat feminismoak barne hartzen ditu emakume transak, emakume arrazializatuak, bisexualak... Zer da feminismoa berdintasuna ez bada, ez? Zuk berdintasuna bilatu nahi baduzu eta zure borrokan ez badituzu onartzen zuretzat desberdinak diren emakumeak... ze lehen ez ziren onartzen emakume beltzak feminismoan edo lesbianak ere ez ziren onartzen. Eta orain zer, historia errepikatu egin behar da emakume transekin? Ez zara konturatzen zu erabiltzen ari zaren argumentuak lehen erabiltzen zirela, ba, lesbianen kontra edo emakume arrazializatuaren kontra...”.



Rina Cabeza neska transa

- “Niri inportantea iruditzen zait Trans Lege hau aurrera eramatea, uste baitut epe motz batean gauzak ondo egiteko beharrezkoa dela, marjinalitate sozial batean ez bizitzeko. Orain nik zuri esaten badizut neska naizela, ez derrigortzeko hormonatzerara”.
- “Feminista batzuek emakume transak ez gaituzte barne hartzen edo ez gaituzte ikusten feminismoaren parte. Uste dutena da emakume transak gizon batzuk garela, eta beren espazio publikoetan sartu nahi dugula eta berei eraso, adibidez, ez? Batzuek diskurtso hori erabiltzen dute gaur egun oraindik, ez? Eta ez da hala”.
- “Ni emakume bat gehiago naiz mundu honetan, eta, nire kasuan, bai sufritzen dudala matxismoa eta baita transfobia ere. Esan daiteke ba sufritzen dudala bai emakume izateagatik eta bai transa izateagatik. Orduan, nik garbi daukat feminismoak ni ere barne hartu behar nauela”.



Trans harrotasunaren bandera. Ituria:[Wikimedia](#)

Informazioa ikasleen esku ipiniko dugu, eta Trans Legearen kontrako iritzia bilatzera ere animatuko ditugu, guk jasotako iritzia aldekoak baitira. Ondoren, ikasleek iritzi propioa garatuko dute. Hainbat modutara eman dezakete iritzia:

- Idatziz:** iritzi-artikulua.
- Ahoz:** ikus-entzunezkoa edo audioa.
- Grafikoki:** komikia, ilustrazioa, adierazpen grafikoa, hitza eta irudia batzen dituen infografia...


Bakarkako lana izango da eta gero gelakideekin partekatuko dute. Egindako lana erakutsiko dute, eta azaldu. Iritzi-artikuluaren kasuan, ozenki irakurriko dute.

Iritzia emateko beste gai bat Chrysalis-Naizen elkarteak abian jarritako kanpaina izan daiteke: *“Badaude alua duten mutilak eta zakila duten neska”*. Eta kanpaina horren aurkako kanpaina egin zuen autobus laranja transfoboa: *“Ez zaitzatela engainatu: mutilek pitilina dute eta neskek alua”*. Hona hemen Yurik eta Rinak gai horri buruz diotena: [Yuriren bideo-pasartea](#) eta [Rinaren testigantza](#).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpen guztietan ahozko jarduna izango da bukaerako emaitza. Aurkezpen-saioak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira bideokamerarekin. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarteak izango dira. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da (irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezauzgarriak](#) eta [baliabideak](#)).

2. Gaia: Patriarkatua eta genero-rolak. LGBTIQ+

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/genero-rolak>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Asko hitz egiten da 'patriarkatuaz', baina zer da? Nola azalduko zenukete?
- Eta zer da 'heteropatriarkatua'? Gauza bera al da? Zergatik ipintzen zaio 'hetero' aurriezki?
- Zer da 'heteroaraua'? 'Heterosexualitatea' araua al da?
- Zer da 'generoa'? Eta zer dira 'genero-rolak'?
- Gizartean berdin tratatzen al dira neskek eta mutilak? Zer esan nahi du "neska/mutil moduan sozializatua" izateak? Zer ondorio ditu horrek?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, multzoen teoria, genitalidadea, generizatu, asimetrikoa, sozializatu, bulimika, objetualizazioa, hegemonikoa, estereotipoak, produkzio-erregimena, normatiboa, falazia, heteropatriarkatua, heteroaraua, heterodestinua, koreografia...

Kontzeptu batzuk

- **Patriarkatua.** Gizonek nagusitasuna duten gizartea, gizonen eta emakumeen parekotasunik ez dagoena. Matriarkatua: emakumeek nagusitasuna duten gizartea.
- **Generoa.** Eraikuntza soziala da: gizarteak sexu bakoitzari (alua eta zakila) egozten dizkion ideia, espektatiba eta ezaugarriak (adibidez, alua dutenak neskak dira eta makilatu egiten dira eta gona daramate; zakila dutenak mutilak dira eta futbola gustatzen zaie).
 - **Genero ez-bitarra.** Mutil/neska generoekin identifikatzen ez den pertsona.
 - **Trans edo transgeneroa.** Jaiotzean ipini dioten sexua bere genero-nortasunarekin bat ez datorrenean. Bat datorrenean, berriz, zisgeneroa da (gehiengoa). Gaiari buruz gehiago jakiteko [*Trans izatea*](#) bideoa ikus daiteke.
- **Genero-rolak.** Mutil/neska generoaren arabera ipintzen dizkiguten eta jokatzeko ditugun rolak, dauzkagun jarrerak (adibidez, mutilek espazio publikoa hartzea edo neskek zaintza-lanak egitea).
- **Mutil/neska moduan sozializatzea.** Gizarteak mutilei/neskei jarritako genero-rolen arabera heztea eta harremantzea.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Ados al zaudete esaten dutenarekin? Identifikatuta sentitu al zarete nolabait?
- Egia al da mutilek espazioa errazago hartzen dutela eta ahotsa gehiago altxatzen dutela? Eman adibideak.
- Egia al da neskek besteak zaintzeko joera agertzen dutela? "Besteentzat" egotekoa?
- Neskentzat inportanteagoa al da edertasuna mutilentzat baino? Hala bada, zergatik?
- Josebe Iturriozek ilea luzea zeraman mutilaren kasua kontatzen du: goitizena ipini ziotela eta azkenean ilea moztea erabaki zuela. Ezagutzen al dituzue 'genero-rolak' betetzen ez dituzten pertsonak? Zer egiten dute? Inguruko onarpenik ba al daukate?
- Harreman sexuarek buruz ere hitz egiten dute bideoan: txortaldiaren koreografia itxia, plazeraren zentralitatea, aktiboa/pasiboa... sexualitatearen inguruko zer nolako erreferentziak dituzue (zinema, pelikulak, pornoa, heziketa...)?
- "Ez da inor eskapatzen", dio Kattalin Minerrek. Heteroarauak denoi eragiten digula, hetero izan ala ez. Eman zuen iritzia.




Farouk James, ilea moztu ezean eskolan onartu nahi ez zuten Erresuma Batuko mutikoa. Iturria: [@farouk_james](https://www.instagram.com/farouk_james)

Gehiago sakontzeko eta adibide gehiago ezagutzeko (janzkera, umorea, ligatzea, parranda...), ikusi bideo hau eta bertan agertzen diren proposamen pedagogikoak: [Matxismoa ezkutuan?](#). Beste bideo hau ere oso lotuta dago jorratzen ari garen gaiarekin: [Maitasun erromantikoaren mitoa](#).

LGTBIQ+ siglak dituen kolektiboa hobeto ezagutzeko, berriz, [bideo hau](#) ikus dezakegu. Sexu aniztasunari buruzko [bideo hau](#) ere gomendagarria da.

3. Sozializatzeko moduei eta genero-rolari buruz hitz egin dezakegu eta iritzi-trukea egin. Ikasleei galdetuko diegu zerk sentiarazten dituen gaizki eta zerk ondo, zer den inportantea eurentzat, onartuak sentitzeko. Binaka jar daitezke, euren artean hitz egin, eta gero talde handian partekatu.

- 
- "Neska/mutila izanda, nigandik hau espero da"...
 - "Onartua sentitzeko, niretzat inportantea da"...
 - "Gaizki sentitzen naiz hau egiten badut"...
 - "Burla egingo lidakete hau egingo banu"...

(Adibidez: Neska izanda, nigandik txukun janzteza eta ezaugarri femeninoak izatea espero da. Niretzat inportantea da itsusi ez sentitzea eta besteei ederra iruditzea. Egoista sentitzen naiz ez baditut ingurukoak zaintzen. Besazpietako ileak ez banitu kenduko, burla egingo lidakete).

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *"Jolasten"*. Eskulanak egingo ditugu, collagea. Taldetxoetan elkartu, eta horma-irudiak edo muralak egingo dituzte ikasleek, gai honen inguruan: patriarkatua zer den eta zer ondorio dituen, sortzen dituen genero-rolak.

Murala egin aurretik, "idea zaparrada" egitea komeniko litzateke. Hona hemen tiraka hasteko hari posible batzuk:

- Iturriozek bideoan aipatutako multzoen teoria erabil dezakete: Zakilak/Aluak. **Zerrendatu**: zerekin lotzen da zakila edukitzea? Eta alua edukitzea?
- **Zerrendatu**: ezaugarri femeninoak eta ezaugarri maskulinoak
- **Zerrendatu**: zer ezin dut egin mutila/neska naizelako?
- **Zerrendatu**: zer egitera bultzatzen naute mutila/neska naizelako?

Murala egiteko, nahi duten teknika eta materialak erabil ditzakete: margoak, aldizkariak, marrazkiak, argazkiak...

Muralak prest daudenean, talde bakoitzak bere murala erakutsiko du eta azalpenak emango ditu: zer egin duten, zergatik eta nola. Ondoren, gelakideek iritzia eman dezakete: muraletik zer gustatu zaien eta zergatik esango dute.

Horma-irudietako batzuk ikastetxean ipin daitezke, korridoretan.



Collage baten adibidea. Iturria: [Irregular Labs](#)

- *"Sormena lagun"*. "Zaila da amorrua ateratzea, moda ez segitzea, ez pintatzea, ez depilatzea...", dio Miren Arangurennek bideoan. Adibidez, neskek ile luzea

eramatea eta mutilek motza: zenbateraino da norberak erabakitakoa eta zenbateraino moda kontua? Zenbateraino edertasun kanon batzuk betetzea?

Sormen-lan honetan genero-rolen buelta ematea izango da erronka. Zer zigortzen du gizarteak? Zigortzen duen hori ipiniko dugu agerian, modu zehatz batean jantzeko eta mugitzeko derrigortasuna.

Bi aukera:

1. Argazkiak erabiltzea. Argazkiak atera: adibidez, neskak itsusi, garrasika, bibotearekin, ilearekin besazpietan... mutilak ezpainak pintatuta, gonekin... Kontuz: beste generoa erridikulizatu gabe. Helburua ez da mutilez/neskaz mozorrotzea. Inportantea da serio hartzea. Egiten ausartzen ez garen hori egitea izango litzateke erronka.

2. Bideoa grabatzea. Beste aukera bat esaldi probokatzailerekin bideo bat sortzea izan daiteke: "Kokoteraino nago ipurdian azkura ematen didaten tangekin". "Haserretzen baldin banaiz, histerikoa naiz?". "Asko ligatzen baldin badut, puta naiz?". "Indarrak ez baldin badaukat, ez naiz gizona?". "Ez naiz isilduko eta ez naiz geldi egongo!". "Besazpietan ileak dauzkat, eta zer!?". "Metrosexuala naiz eta zer?". "Begiak pintatzen baditut, ez naiz mutila?".

Lanaren emaitza gelakideekin partekatuko dute, eta sormen-prozesua azalduko dute. Iritzi-trukea sustatuko da.

Argazki-erakusketa edo bideo-emanaldia egin daiteke ikastetxean. Edo biak batera, talde batzuek argazkiak eta beste batzuek bideoak egiten badituzte.




Iturria: [Nike](#)



Iturria: [@billie](#)

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Elkarrizketa laburrak egin ditzakete, kalean, 'heteropatriarkatua' eta 'heteroaraua' kontzeptuen inguruan, eta bideoan grabatu. Binaka egin dezakete. Helburua: heteroaraua zalantzan jartzea. Heteroarauari buruz hausnarketa eragitea.

Galdera hauek eginda sortzen diren erreakzioak (harridura, adibidez) eta erantzunak jasotzea proposatzen dugu:

- 
- "Zer iritzi daukazu heterosexualei/heterosexualitateari buruz?"
 - "Eta zu, zergatik zara heterosexuala?"

Kontuan izan behar da ez direla ohiko galderak, heterosexualitatea delako araua. Ohikoagoa izango litzateke homosexualitatea zer iruditzen zaien galdetzea. Jende asko (adinekoa batez ere, baina ez adinekoa bakarrik) harriduta geratu daiteke, eta posible da momento horretan homosexuala eta heterosexuala kontzeptuak nahastea ere... Lan honen helburua ez da inor erridikulizatzea eta, bideoa osatzean, kontu handia izan behar da jasotako erantzunekin. Helburua hausnarketa eragitea da: zer gertatzen den heterosexualitatea zalantzan jartzen denean.

Lanarekin hasi aurretik bideoa non erabiliko den erabakitzea ere inportantea da: ea barne erabilerarako izango den soilik (gelarako) ala zabaldu egingo den (ikastetxean, sare sozialetan...). Horrek jendearen parte-hartzea ere baldintzatu dezake.

Bideoen iraupena gehienez 5 minutukoa izango da eta gutxienez minutu batekoa. Bideo-edizioa beharrezkoa izango da grabatutako testigantzak elkartzeko (edizioari buruzko argibideak emango zaizkie ikasleei). Taldekideen artean lanak banatu ditzakete: adibidez, hiru baldin badira, batek grabatu egin dezake, besteak galderak egin eta hirugarrenak editatu.

Egindako lana gelakideekin partekatuko dute. Bideoa erakutsi eta azalpenak eman: elkarrizketak egiteko prozesua nolakoa izan den (zaila, erraza, anekdotak...). Bideo guztiak ikusi ondoren, iritzi-trukea egingo dute.

3. *Gaia*: Armairutik ateratzen. LGTBIQ+

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/armairutik-ateratzen>

The screenshot shows the website 'Ahotsak IKASGELAN' with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkötegia'. The main heading is 'Armairutik ateratzen'. Below the heading is a short text: 'Homosexualitatea publikoki agertzeari "armairutik ateratzea" esaten zaio. Izan ere, heterosexuala izatea hartzen da normalizat, eta homosexualak/bisexualak beren sexu-lehentasunen berri eman behar izaten dute. Hainbat esperientzia bildu ditugu bideo honetan.' Below this is a video player showing a woman speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Titulak: DBH
- Proiektuak: EDPA 2.0, Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Balio etikoak
- Gaiak: Genero-antolatua
- 5 puntu 5 ikasleko maximoak
- Irudi 2 guztira

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Zer datorkizue burura "armairutik ateratzea" esanez gero? Nor ateratzen da armairutik eta zergatik dago armairuan? Nondik dator esaera hori?
- Gaur egun sexu-askatasuna dugula suposatzen da. Ba al dago "armairua egin" edo "armairuan egon" beharrik? Zergatik?
- Erraza al da "armairutik ateratzea"? Zuen ustez, zer beldur sor daitezke?
- Zenbat sexu-joera daude? Zein dira?

Homosexualitatea publikoki agertzeari “armairutik ateratzea” esaten zaio. Izan ere, heterosexuala izatea hartzen da normaltzat, eta homosexualak/bisexualak euren sexu-lehentasunen berri eman behar izaten dute.

Sexu-joera batzuk

- **Heterosexuala.** Sexu desberdinekoa gustatzen zaio.
- **Homosexuala.** Sexu berekoa gustatzen zaio. Lesbiana ala gay izan daiteke.
- **Bisexuala.** Bi sexuetakoa gustatzen zaizkio, neskak eta mutilak.
- **Pansexuala.** Ez dio sexuari begiratzen. Pertsona gustatzen zaio (berdin da mutila den, neska den, zis den, trans den...).
- **Asexuala.** Ez du erakarmen sexualik sentitzen.
- **Demisexuala.** Erakarrita sentitzeko, aurrez harreman afektibo bat izan behar du pertsonarekin.

Garai batean zaila zen homosexualitatea agertzea, oso zigortuta zegoelako. Irainak eta erasoak ohikoak ziren, herri txikietan bereziki. Emakumeen kasuan, gainera, pentsaezina zen; izan ere, emakumeari ez zitzaion sexu grinik izan zezakeenik ere aitortzen (gizarte katolikoan sexua bekatua zen, umeak izateko ez baldin bazen). Bisexualitatea ere ez zen posible ikusten, noski.

- *Gaur egun, zein da egoera?*
- *Homofobia kasurik ezagutzen al duzue (herrian gertatua, hedabideen bidez ezagutua...)?*



Melania Geymonat eta bere neska-laguna Londresko autobus batean. Iturria: [Melania Geymonat/Facebook](#)

Erasoaren ostean sareetara bideoa igo zuen Geymonatek, gertatutakoa azaltzen: gazte batzuek jipoitu egin zituzten, ez zutelako elkar musukatu nahi izan, haiek eskatu zieten bezala.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, *disidente*, *apropiatu*, *genero-adierazpena*...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Eman iritzia.
- Zuek "noiz eta nola" jakin zenuten zein den zuen sexu-joera? Garbi al daukazue? Azaldu zergatik zaretan heterosexualak/homosexualak/bisexualak/x.
- Zuen ustez, sexu-joera garbi izatea al da normalena? Batzuek diote probatu gabe ezin dela jakin... Zuek nola ikusten duzue?
- Genetikoa al da? Zenbateko eragina du heziketak sexu-joeran? Denborarekin aldatzen joan al daiteke?
- Josebe Iturriozek dio neskentzat "mobida bat" dela ilea moztea? Hala al da?

Amaia Agirre bertsolariari asko kostatu zitzaion bere sexu-joera definitzea. Iñigok argi zeukan hasieratik, baina "armairua egin" zuen denbora batez. Min hartzeko beldurra aipatzen dute biek ala biek.

- Zuen ustez, min hartzeko beldurra sentitzea normala al da gaur egun ere?
- Duela urte batzuk gai hauek "tabu" ziren, eta orain? Naturaltasunez hitz egiten duzue ala oraindik ere berezia al da heterosexuala ez dena?
- Iñigori eta Kattalini feminismoak lagundu zien ahalduntze-prozesuan. Feminismoa babesgune izan al daiteke? Nola?

Lesbianen kasuan "armairu eternoak" aipatzen ditu Iturriozek: denek pentsatzea lagunak direla, ez bikotea, eta esaten du baita ere bi neska objektu erotiko moduan ikusten dituztela mutilek eta, adibidez, "trio"ak proposatzen dizkietela.



- Nondik etor daitezke iruditeria eta jarrera horiek? Hausnartu eta eman zuen iritzia.

Iñigok bere sexu-joera politizatu egin du: diskurtso bat dauka eta "genero-adierazpen moduan" modu berezian janzten da, nahiz eta batzuetan ez eroso sentitu.



-Zer iruditzen zaizue? Ausarta al da? Atentzioa eman nahi al du? Probokatu?

-Gizarteak indarkeria onartzen al du genero-disidentziaren aurrean? Ados al zaudete?

LGBTIQ+ siglak dituen kolektiboa hobeto ezagutzeko, [bideo hau](#) ikus dezakegu (proposamen pedagogikoak ere badauzka). Beste bi bideo hauek ere aukerakoak dira lantzen ari garen gaiarekin lotuta: [Patriarkatua eta genero-rolak](#) eta [Matxismoa ezkutuan?](#).



Iturria: [A.Lujan](#)

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. "Armairutik irten" den bat elkarrizketatzea proposatzen dugu, herrian, inguruan. Pertsona ezaguna izan daiteke ala ez.

Gelakide bat ere izan daiteke. Ikasleak baino dezente zaharragoa baldin bada, seguruenez zailagoa gertatuko zitzaion eta interesgarria da bizipen hori jasotzea.

Galderak gelan presta ditzakete, denek elkarrekin, eta gero binaka egin lana. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoan grabatuko dituzte (bideokamera edo sakelakoa), gero gelakideei erakusteko. Grabazioa editatu egin dezakete, OpenShot programarekin (nola erabili erakutsiko zaie), pasarte onenak aukeratuta. Bideoa gutxienez 2 minutukoa izango da eta gehienez 10 minutukoa. Hona hemen grabazioak egiteko kontuan har ditzaketen jarraibide orokorrak.

Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte (izena, nongoa den, zer harreman duten harekin, etab.), bideoa erakustearekin batera.


Bideo guztietako pasarteekin bideo bakarra osatu daiteke bukaeran. Ikus-entzunezko hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da elkarrizketak gero ahotsak.eus-era eramatea ere (jarri gurekin harremanetan).

- *“Testigantza bila”*. Ahotsak.eus-en eta beste toki batzuetan (hedabideetan, sare sozialetan...) testigantzak bilatu eta adibideak ekarriko dituzte gelara (adibidez, Josh Cavallo futbolariaren adierazpenak...). Gaia: sexu-joerak eta LGBTIQ+ kolektiboa. Posible da baita ere sexu-joera jakin bateko kolektiboek egiten dituzten ekintzei buruzko elkarrizketak izatea (adibide batzuk: bollera bertso-saioak, eRRe bertso-emanaldia, Lurrun minez antzezlana, Beñat Zubillagaren liburuak...).



Lurrun minez antzezlaneaneko une bat. Iturria: Kronika.eus

Banaka edo binaka egiteko lana izango da. Pauso posibleak:



Aurkezpenen ostean, iritzi-trukerako tartea egongo da.


- *"Bestearen azalean"*. 'Zapalduen antzerkia' deitzen dena egingo dugu: baztertuei hitza emateko antzezlan txikiak. Feminismoan asko erabili izan den antzerki-mota da. Gatazka bat izango da antzezlanaren erdigunea, zapalkuntza bat. Kasu honetan, zapalkuntza-egoerak homofobiarekin lotuta egongo dira.

Hona hemen adibide batzuk (ikasleek beste egoera batzuk asmatu ditzakete):

- Mutil bat beldurtu egin da, txakur txiki bat zaunkaka hurbildu zaionean. *"Beldurtuta? Hi marikoia haiz!"*, esan dio kuadrillako batek.
- Bi neska elkar musukatzen ari dira tabernan, eta mutil bat gerturatu zaie: *"Zer, egingo dugu trioa, neskak?"*.
- Bi mutil elkarri eskutik helduta doaz kalean zehar, eta andre batek aldamenekoari: *"Lotsagarria da, horrelakoak ikusi beharra ere!"*

Gure proposamena inprobisazioa lantzea da. Taldetxoak egin, rolak banatu eta egoerak pentsatuko dituzte, eta elkarrizketak inprobisatu egingo dituzte. Hori bai, inprobisazioak bi zati izango ditu. Lehenengoan, amaiera beti bera izango da: protagonista zapuztuta geratuko da, zapalkuntzaren eraginez. Momentu horretan, ikusleek (gelakideek) egoerari buelta emateko proposamenak egingo dituzte. Eta, orduan, inprobisazioaren bigarren zatia etorriko da, aurrekoak baino bukaera hobea izango duena.

Adibide bat



1. Mikel beldurtu egin da txakurra zaunkaka hurbildu zaionean. *"Beldurtuta? Zer haiz, marikoa, ala?"*, esan dio kuadrillako batek eta guztiak barrez hasi dira. Mikel lotsatuta geratu da, isilik.

2. Bukaera aldatuta: Mikel ez da isilduko eta serio esango dio: *"Hik zer daukag marikoen kontra?"*. Denak isildu egingo dira. *"Hi geratuko haiz potrorik gabe, txakurrak hortik heltzen badik!"*, botako du barrez, eta denak barrez hasiko dira.

Inprobisazio-saioen ondoren, egokitu zaizkien roletan nola sentitu diren partekatu dezakete, ea lortu duten bestearen azalean ipintzea.

4. *Gaia*: Familia-eredu desberdinak. LGTBIQ+

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/familia-ereduak>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatuzko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa zeri buruzkoa izango den aipatu gabe:

- Pentsatu familia bat, burura lehenengo etortzen zaizuena. Nolako familia pentsatu duzue (gehienek aita, ama, semea eta alaba esango dute)? Eta zuriak, ezta?
- Nolakoa da zure familia? Bat al dator esan duzuenarekin?
- Zer da familia? Nola definituko zenukete?
- Odolekoa izan behar al du `familia`k? `Biologikoa` esaten dena?
- Seme-alabak egon behar al dira familia izateko?
- Osa al dezakete familia elkarrekin bizi diren lagunak? Elkarrekin bizi beharra al dago familia izateko?



AEBko Brigg senar-emazteek 34 seme-alaba dituzte, horietako 29 adoptatuak. Iturria: [Jeane Briggs bbc.com](http://Jeane.Briggs.bbc.com)

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu, euskalkietako hitzak, adibidez. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizkizue bideoan agertu direnen familiak?
- Ezagutzen al duzue antzeko familia-eredurik? Zuek ezagutzen dituzuenak aipatu.
- Ados al zaudete entzundakoekin? Bideoa ikusi ondoren, zer hitz erabil ditzakegu "familia" definitzeko?
- Igonek dio aita eta ama eta seme-alaben inguruan hitz egin beharrean, eskolan etxeko unitateez, familiaz, inguruaz... hitz egin beharko litzatekeela. Zuek nola landuko zenukete gaia eskolan?

Beldurra aipatzen dute bideoan, desberdina den horrek sorrarazten duen beldurra. Amaia Agirrek negarrez esaten omen zion bikotekideari, Ainarari: "Burla egingo diote bi ama dituelako". Harrera-familia sortzeko garaian ere inguruko beldurra piztu zela ikusi zuten bai Itziarrek eta bai Anderrek.

- Ezjakintasunak beldurra dakarrela uste al duzue?
- Zer da zehazki "harrera-familia"? Nola azalduko zenukete?
- Zuen ustez, nahikoa al da elkar maite duten pertsonak izatea "familia" osatzeko?

Ander eta Igone kuadrillakoak dira: euren kuadrillan badaude eurenak bezalako familia gehiago ere; adibidez, bi amak osatutako familia, seme-alabarik gabekoa... Lehenengo umea harreran hartu zueneko pasadizo polita kontatzen du pasarte honetan Anderrek (01:00 minututik aurrera): [Labadora jartzen duen mutila.](#)

Amaia Agirreri askotan galdetu izan diote ea bietako nor den "egiazko ama". Hau da, ama biologikoa. "Bigarren mailako ama" sentitzeari buruz hitz egiten du pasarte honetan: [Ama biologikoa ez izatea.](#) Ama/aita izateari buruz eta amatasun-senari buruz ere hitz egin dezakegu ikasleekin, ea zer eredu eta desira dituzten gai horrekin lotuta.



Amaia eta Aina hiru alabekin. Iturria: [Txintxarri.](#)

Gaian gehiago sakontzeko, posible da ETB1eko *Ur handitan* saioko 'Denetariko familia-ereduak' erreportajea ikustea.

Maitasun erromantikoaren mitoa bideoa ikustea ere gomendatzen dugu, oso lotuta dagoelako familia-ereduen gaiarekin.

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *"Testigantza bila"*. Ikertzea, banaka edo binaka. Hori da proposatzen duguna: familia-eredu diferenteei buruzko informazioa batzea. Esperientzia gehiago ekartzea gelara, besteak beste, hedabideetatik hartuta.



Fede Otaegi eta Junkal Perez bi alabekin. Iturria: [Txintxarri](#).

Hemen lau aukera, lau lan-ildo:

a. Bideoan agertu diren pertsonen esperientziak hobeto ezagutzea. Ahotsak.eus-en jasotako testigantzak ikusi, eta laburpena egitea, eta bideo-pasarte esanguratsu bat aukeratzea, laburra, gelan erakusteko:

Amaia: <https://ahotsak.eus/amasa-villabona/hizlariak/amaia-agirre-arrastoa/>

Igone: <https://ahotsak.eus/eibar/hizlariak/igone-lamarain-cobo/>

Ander: <https://ahotsak.eus/eibar/hizlariak/ander-mayora-agirreazaldegil/>

Itziar: <https://ahotsak.eus/azkoitia/hizlariak/itziar-elias-uria/>

b. Beste familia batzuen esperientziak jasotzea (adibidez, hedabideetan: artikulak, bideoak...). *'Denetarikoa familia-ereduak'* erreportajea, ETBko *Ur handitan* saioan. Familia bati buruz ikusitakoa edo irakurritakoa gure egin eta gelan azaltzea: laburpen bat egitea eta iritzia ematea (posible da bideo-pasarte labur bat erakustea ere).

c. Informazioa bilatzea familia-eredu zehatzei buruz eta gelakideei azaltzea:

- Harrera-familia
- Adopzioa
- Lagunduriko ugalketa-motak: intseminazioa, 'In vitro' fekundazioa...

d. Ezagutzen dugun familia baten esperientzia kontatzea (norberaren familia ere izan daiteke; adibidez, ikasleak bere esperientzia kontatzea eta argazki batzuk eramatea gelara).

Kasu guztietan ikasleek aurkezpen txikiak egingo dituzte, euren lanaren berri emateko. Ondoren, iritzi-trukerako aukera egongo da.

- *"Jolasten"*. Eskulanak egingo ditugu. Familien karta-joko berri bat asmatzea izango da erronka. Badago oso ezaguna den familien karta-joko bat: eskimalak, mexikarrak, tirolesak agertzen dira... aita, ama, semea, alaba, aitona eta amona. Gaur egungo egoerarekin bat datorren karta-jokoa asmatuko dute ikasleek.

Taldeka egin daiteke. Talde bakoitzak bere karta-jokoa asmatuko du eta baita jolasteko arauak ere. Kartak egiteko, kartoi mehe zuria erabil dezakete, moztu eta bertan marrazkiak egin (collagea ere erabil dezakete). Lehenengo, kartak nolakoak izango diren pentsatzea komeni da, zenbat karta izango diren eta zein izango den jokatzeko modua. Zenbakiak eta koloreak ere inportanteak izan daitezke, komodinak egon daitezke... Erabili irudimena! Hori bai, lagungarria gerta daiteke jada asmatuta dauden karta-jokoak ezagutzea, ideiak hartzeko (adibiderako, ikusi Pirritx eta Porrotxek ateratako karta-jokoa).



*Familia Milakolore karta-jokoa.
Iturria: Katxiporreta.*

Karta-jokoak prest dituztenean, talde bakoitzak bere karta-jokoa erakutsiko du eta joko-arauak azaldu. Ondoren, jolasteko ordua izango da: beste talde batekoek prestatutako kartak probatuko ditugu!

- *"Sormena lagun"*. Kanta, ipuina edo bertsoak sortuko dituzte, familia-eredu ez tradizionalak edo aniztasuna oinarri moduan hartuta. Hutsetik sor dezakete, edo abesti ezagun baten bertsoa egin, letra aldatuta. Dena libre da, ikasleek erabaki dezatela zer egin nahi duten, bakarka edo 2-3 laguneko talde txikietan.

Adibide moduan, hemen proposamen bat. Taldetxo batek letra hauekin rapa sortu eta bideoa graba dezake:

Ama, aita, bi ume
 familia tradizionala
 ondo dago baina jada
 ez da hain normala

Nik bi ama dauzkat
 eta zuk bakarrik aita
 Jon amonakin bizi da
 familiak gara baita

Umedun familiak
 eta umerik gabeak
 familia txikiak eta
 lagun-taldeak

Berdin da zenbat garen
 eta odolarena
 maitasuna da familia
 egiten duena

Itziar Eliasi Pirritx eta Porrotxek ateratako “Alfonsiño”ren ipuina oso baliagarria gertatu zitzaion alabei harrera-familiarena esplikatzeko: [Alfonsiñoren ipuina](#) (ikus 03:00 minututik aurrera). [Familia milakolore1](#) proiektuko sei ipuinetako bat da *Alfonsiño*, harreran hartutako mutikoari buruzkoa.



Familia milakolore karta-jokoa. Iturria: [Katxiporreta](#).

Idaztea gustatzen zaien ikasleek familia berezi bati buruzko ipuin bat idaztea erabaki dezakete; binaka eginez gero, batek ipuina idatz dezake eta besteak marrazkiak egin.

Bertsoak sortzera animatuz gero, berriz, arbel digitala erabil dezakete (izena eman behar da) eta doinua aukeratzeko, berriz, doinutegia.

Lantxoak prestatu ostean, gela osoaren aurrean aurkeztuko dute, kantatuz, "rapeatuz", bideoa erakutsiz edo ozenki irakurritik. Ondoren, nola sentitu diren galdetuko zaie, ea eroso aritu diren ala ez.

5. *Gaia*: Emakume musikariak. Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakume-musikariak>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa musikariei buruzkoa dela aipatuta:

- Musikazaleak al zarete?
- Gelan ba al dago musikaririk? Zenbat neska eta zenbat mutil? Zer musika-tresna jotzen duzue?
- Ba al dago musika-talderik inguruan?
- Zenbat emakume musikari ezagutzen dituzue? Egin zerrenda.
- Horietako zenbatek kantatzen dute euskaraz?
- Zerrendakoak neska osatutako taldeak dira ala talde mistoak?
- Eta zer paper jotzen dute neskek musika-taldeetan? Bakarlariak, abeslariak, instrumentistak...
- Zuen ustez, emakume musikari asko al dago? Gizonezkoak bezainbeste?
- Berdin epaitzen al da oholtzara igotzen den neska eta mutila?
- Mutilen baldintza beretan al dabilta neska musikagintzan? Arrazoitu.
- Ba al dakizue nor den Maixa Lizarribar? Eta Ainara Ortega? Eta Miren Aranguren? Elizagoien ahizpak?

Bideoan agertuko diren emakume musikariei buruzko informazio pixka bat eman dezakegu eta argazkiren bat erakutsi: [Maixa Lizarribar](#) trikitilaria, [Ainara Ortega](#) jazz-abeslaria, [Miren Aranguren](#) rock-abeslaria eta [Elizaqoien ahipak](#). [Iratxe Retolazak](#) emakume musikariei buruzko ikerketa bat egin duela ere aipatu daiteke.



Ainara Ortega jazz abeslaria. Iturria: [Facebook](#)

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Espero al zenituzten esan dituztenak?
- Ainararen ustez, emakume musikarien "loraldi bat" ari gara bizitzen. Mirenen arabera, oholtzetan "oso gutxi errepresentatuak (ordezkatuak)" daude. Zer iruditzen zaizue?
- Egia al da egoera desberdina dela musika-estiloaren arabera? Adibidez hip-hoparen mundua oso maskulinoa dela?
- Talde batzuetan emakumea abeslaria izaten da eta gainerako kideak gizonetzkoak.
- Zer da Maixak dioen "ey, que soy la jefa" hori (Izaro abeslariak teknikari bati esan ziona, berari zuzendu ordez taldeko mutil bati zuzendu zitzaionean)?
- Mirenek eta beste emakume feminista batzuek emakume musikarien rock-festibala antolatu zuten Zarautzen. Ba al dago horrelako ekimenen beharrik?
- Ainarak 19 urterekin gertatu zitzaiona kontatzen du. Eman zuen iritzia.
- Maixak anekdota bat kontatzen du, plaza handi batean gertatua. Zer sentitzen duzue halakoak entzutean?
- "Emakumeen arteko kompetentzia" ere aipatzen du Maixak. Mutilei ez zaiela halakorik leporatzen. Arrazoia al dauka?
- Oholtza gainean emakumea epaitua dela ere badiote: gorputz-jarreragatik eta baita musikari moduan ere. "Ez du hain gaizki egiten emakumea izateko". Komentatu.

Maixa eta Ixiarren ibilbidea hobeto ezagutzeko, 1990eko hamarkadako trikitiaren boom-ari buruz diharduen [Soinu Txiki 3](#) erreportajearen lehen minutuak ikustea proposatzen dugu. Gainera, Amak taldearen [Gu bideoklipa](#) ikus dezakegu osorik eta Occhi di Farfalla taldearen [Hala nahi dudalako](#) abestia ere (04:05 minututik aurrera) adi entzuteko modukoa da. Proposamena: bi abestion letra ateratzea eta komentatzea.



Soinu Txiki 3 dokumentaleko fotograma. Iturria: [Facebook](#)

Emakumeen kupoaren gaiaz ere hitz egiten du Miren Arangurenek: kopuru zehatz bat betetzeko beharraz eta ustezko merezimendu ezaz. Entzun [pasarte honetako](#) lehenengo minutua eta eztabaidatu.

[Emakumeak oholtzara](#) bideoa ere ikus daiteke, eta baita [Emarock](#) dokumentala ere. Gaztezuloren artikulua hau ere interesgarria da: [Emakumeak musika klasikoan](#).

Bideo honekin lotuta, lau bideo hauek ere ikus daitezke, beste alor batzuei buruzkoak (proposamen pedagogikoak ere badituzte):

- [Emakumeak bertsoan](#)
- [Emakume idazleak](#)
- [Emakume trikitilariak](#)
- [Emakumeak eta surfa](#)

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkari bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *"Gaur egunera begira"*. Emakume musikariak ezagutarazteko ariketa egingo dugu, soilik euskaraz edo euskaraz ere abesten dutenak. Emakume musikariak edo emakume-taldeak. Bakarka edo binaka egin daiteke ariketa. Emakumeak aukeratu, informatu eta aurkeztu. Ahal dela, haien lanen bat ere erakutsiko da (kantaren bat, bideoklipen bat).



Leie Meie taldea. Iturria: [@leiemeietaldea](https://www.instagram.com/leiemeietaldea)



Haizeatxo. Iturria: [@nngam_photo](https://www.instagram.com/nngam_photo)



Kai Nakai taldea. Iturria: [musikasten.eu](https://www.musikasten.eu)




Mursego. Iturria: [badok.eu](https://www.badok.eu)

Hona hemen aukera batzuk (gehienak gaur egungoak diren arren, garai bateko batzuk ere badaude, bide-urratzaileak ezagutzea ere interesgarria baita):

Lourdes Iriondo	Amaia Zubiria	Maddi Oihenart	Miren Aranburu	Estitxu
Biren	Anari	Zaloa Urain	Sorkun	Olatz Zugasti
Mursego	Ines Osinaga	Izaro Andres	Olatz Salvador	Idoia Asurmedi
Maixa ta Ixiar	Alaitz eta Maider	Ainara Ortega	Aiora Erretereria	Miren Aranguren
Josune Arakistain	Zuriñe Hidalgo	Aneguria	La Basu	Birkite Alonso
Miren Narbaiza	Maria Amolategi	Saioa Garin	Eneritz Furryak	Naroa Gaintza
Afrika Bibang	Rakel Arenaza	Maialen Errotabehere	Iratxe Mugire	Noa Lur
Ain1	Amak taldea	Amaren alabak	Neomak taldea	Nahia Zubeldia
Sara Azurza	Esti Markez	Amaia Riouspeyrous	Ainara Legardon	Maria Rivero
Irrekoñozibles	Lorrazak	Leie Meie	Alarma morea	Aiama
Arima	Intza Unanue	Ezten giro	Koban	Beietz
Sua	Orbel	Raitx	Anita Parker	Matxarda
Haizeatxo	Garilak 26	Humus	Hesian	Skabidean
Liher	Maddi Noguera	Keike	Sorkari	Alargun beltzak
Sugan	Izate	Seiren	Ddik	Kasernarat
Gaur ez	Kerasy	Lain	On	Anai arrebak
Labrit	Kashbad	Deslai	Hemendik at	Lorebeltz
Amaiur	Eutsi	Tximeleta	Hutsa	Pottors ta Klito
Kai Nakai	Anne Lukin	Garazi Esnaola	Idoia Hernandez	Gilda
Niña Coyote eta	Natali	Ziztada & Rlantz	Burutik	Estitxu Pinatxo
Chico Tornado				

Hau ek ez dira bakarrak, ezta gutxiago ere. Ikasleek beste batzuk ere aukeratu ditzakete, nor bere gustukoa. Zerrenda osatugabe bat dago [Wikipedian](#), beste bat [youtuben](#) eta [Musika Gida Morean](#). Ondo legoke zerrenda berri bat osatzea, guztien artean, eta sare sozialetan eskuragarri jartzea.

Hona hemen aurkezpenerako gidalerro batzuk:



- *"Sormena lagun"*. Abesti bat edo bertasio bat sortuko dute ikasleek. Bertso sorta bat ere izan daiteke edo rapa. Sortu eta gero kantatu. Abeslari bihurtuko dira. Abestiak euskaraz izango dira eta askatasunaren aldekoak.



'Alarma Morea' taldea. Iturria: [Otamotz](#)

Hemen adibide batzuk, ideiak hartzeko: Nataliren [Zerbait aldatzera doa](#), Izaroren [Libre](#), Alarma Morearen [Ez beti da ez](#) eta [Azala](#), ON taldearen [Aqian](#), Eutsi taldearen [Beldur barik](#), Erlaitz taldearen [Mundua aldatu](#), Huntzaren [Zer](#)

izan eta Harro gaude, Haizeatxoren Nire bala eta Nire lagunek bai, Mikel Markez eta Aire ahizpen Konplize ditut eta, Esti Markezen Printzesak eta printzeak, Neomak taldearen Hamen, Ines Osinagaren Rimmel eta Ezetz, Kai Nakairen Kolpe, Gatibu-Izaroren Aske Maitte, Amak taldearen Gu eta Tema, Xabi Solanoren Erre zenituzten, Kantu Koloreren Nire gorputza da, La Kora abesbatzaren Emakumeok planto, Sastraka gaztetxeok sortutako Aurre egingo dizueten emakumeak, Gatiburen Ez naz makurtuko, Pottors ta Klitoren Autodefentsa Feminista, Bilgune Feministaren Paradisua sutan, Olatz Urkiaren Hau da greba feminista, Iker Laurobaren Denok zu, Izar eta Olaiaren Martxoak 8, Yogurinha Borovaren Emakume, Biren taldearen Dena eta Izua...

Aurrez aurreko emanaldia egin dezakete edo bideoan grabatu eta gero erakutsi; ikasleek erabaki dezatela. Aurrez aurrekoa izatea lehenesten dugu, espazio publikoa hartzeko ariketa egin dezaten. Karaokea ere izan daiteke, gustuko abesti batekin (kasu horretan, sormena eszenifikazioan egongo litzateke gehiago: janzkera, jarrera...).

Jarduera taldeka egin daiteke, 3-4 laguneko talde txikietan. Talde mistoak edo emakume-taldeak osa ditzakete; gutxienez emakume bat egongo da talde bakoitzean eta nolabaiteko protagonismoa izango du (ahalduntzeko balio beharko lioke).

- *“Jolasten”*. Eskulanak egitea proposatzen dugu: collagea. Gaia: emakume musikariak. Horma-irudiak presta ditzakete sarean aurkitutako argazkiekin eta beraiek egindako marrazkiekin. Abeslarien izenak erabilia egin daiteke edo zerbait orokorra. Emakumeak kantuan eta musika tresnak jotzen agertzen diren bideoetara iristeko bide bat Musika Gida Morera jotzea da; bideoetatik fotogramak atera ditzakete, gero imprimatu eta collagean erabiltzeko.

Beasaingo 'Gilda' taldea. Iturria: [Zarauzko Hitza](#)

Lan hau bideoan ere egin daiteke. Adibidez, abesti egoki bat aukeratu eta abestiak irauten duen bitartean irudietan Euskal Herriko emakumeak agertzea kantuan, bateria jotzen, gitarra jotzen, eta abar. Horretarako, bideoak editatzen jakitea komeni da (ez badakite, azalpen batzuk emango zaizkie).

Lana talde txikietan egin daiteke. Bukatzean, talde bakoitzak gelakideekin partekatuko du egindakoa, ahozko aurkezpen txiki baten bidez. Horma-irudiak ikastetxean ipin daitezke gero eta bideoak sarean zabaldu.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Herriko neska/emakume musikari bat elkarrizketatzea da erronka. Ezaguna izan daiteke ala hasiberria. Abeslaria izan daiteke edo, adibidez, musika bandan jotzen duena, edo bateria jotzen ikasten dabilena... Gelan bertan ere egon daitezke neska musikariak.

Galderak gelan presta ditzakete, denek elkarrekin, eta gero binaka egin lana.

Uxue Garitano, Maitane Suinaga eta Maialen Txintxurreta, Euskadiko ikasleen orkestra (EIO) gazteko kideak. Iturria: [Goiena](#)


Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoan grabatuko dituzte (bideokamera edo sakelakoa), gero gelakideei erakusteko. Grabazioa editatu egin dezakete, [OpenShot](#) programarekin (nola erabili erakutsiko zaie), pasarte onenak aukeratuta. Bideoa gutxienez 2 minutukoa izango da eta gehienez 10 minutukoa. Hona hemen grabazioak egiteko kontuan har ditzaketen [jarraibide orokorrak](#).

Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte (izena, ibilbidea, zer harreman duten harekin, etab.), bideoa erakustearekin batera.

Bideo guztietako pasarteekin bideo bakarra osatu daiteke bukaeran. Ikus-entzunezko hori ikastetxean eta herrian zabaldu daiteke. Posible da elkarrizketak gero [ahotsak.eus](#)-era eramatea ere (jarri gurekin harremanetan).

6. Gaia: Maitasun erromantikoaren mitoak. Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/maitasun-erromantikoa>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa maitasunari buruzkoa izango dela aipatuta:

- Asko idatzi da maitasunaz eta desamodioaz. Sinisten al duzue maitasunean?
- Maitasuna konplikatua dela diote askok. Zuek nola bizi duzue?
- Erromantikoak al zarete?
- Zer da erromantikoa izatea? Zer egiten du pertsona erromantiko batek edo zer gustatzen zaio? Eman adibideak.
- Gustatzen al zaizkizue abesti erromantikoak? Zer ezaugarri dituzte?
- Nolakoak dira pelikula eta telesail/websail erromantikoak (maitasuna lortzeko arazoak/ahaleginak, bukaera zoriontsua...)? Aipatu batzuk.
- Zer da maitasun erromantikoa? Zein dira maitasun erromantikoaren mitoak? Guztion artean zerrendatu.
- Maitasun erromantikoaren mitoeak ba al dute eraginik zuengan?
- Nolakoak dira zuek desiratzen dituzuen bikote/maitasun harremanak?

Bideoa ikusi aurretik euskarazko abesti erromantiko batzuk entzun ditzakegu, bizpahiru, girotzeko (ikasleek proposatutakoak izan daitezke). Hona hemen adibide batzuk: Mikel Markezen Zure begiek, Ken Zazpi taldearen Ilargia eta Latzen taldearen Laztana.

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu, euskalkietako hitzak adibidez. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Pentsarazi al dizue?
- Bikoterik gabe ezin dela zoriontsu izan, zerbait falta zaigula... halako mezurik iristen al zaizue zuei?
- Bihotza lapurtuko dizuen pertsonaren bat agertzea, maitemintzea... ba al dago zuen desiren artean?
- Gazteentzat laranja erdiarena "horterada bat" dela dio Iñigok. Hala al da zuentzat ere? Eta printze urdinarena?
- Monogamia, fideltasuna. Bikotekide bat eta bakarra. Heterosexuala, noski. Pelikula askotan "hiruki sentimentalak" sortzen dira: protagonistak bi neska/mutilen artean bakarra aukeratu behar izaten du. Nola ikusten duzue zuek monogamiarena?

- Maitasuna betiko izango dela, hori da beste mitoetako bat. Pelikuletan ikusten al da hori?
- Bikotea familia eta lagunak baino inportanteagoa bihurtu daitekeela dio Mirenek bideoan. Ados al zaudete?
- Egia da maitemintzeak batzuetan sufriarazi egiten digula... Zer diozue "Asko maitatzen duenak asko sufritzen du" esaldiari buruz?
- Iñigok bideoan dioenez: "Maitasun erromantikoa harreman toxiko batzuk naturalizatzea da: zeloak, posesioa... jarrera matxista batzuk naturalizatzea". Arrazoia al du? Ala "Maitasunak denarekin ahal du"? Eman dezakezue adibiderik?

Bideoan diotenez, prrot-sentsazioa eragiten dute maitasun erromantikoaren mitoek, espektatibak ez betetzearena. Horrekin lotuta, San Valentin egunari buruz ere hitz egin dezakegu: gure maitasuna publiko egin beharri buruz, maitasunarekin lotutako merkatuari buruz... otsailaren 14an zergatik zoriondu behar da bikotekidea duena (bikotekiderik ez duena gutxiago sentiarazteko arriskuarekin)? Gauza bera gerta daiteke amaren egunarekin eta aitaren egunarekin.



Interneteko iragarkia. Iturria: [Internet](#)

Maitasun erromantikoaren mitoekin lotutako erreportaje hau eta Euskal Herriko 60 neraberekin horri buruz egindako ikerketa bati buruzko informazioa begiratu ditzakegu. Lanketa interesgarria gazte hauek garagardo eta patatekin egin zutena ere: Nola maitatu behar duqu feministok?

Familia-eredu desberdinei buruzko bideoa ere ikus daiteke, oso lotuta dagoelako maitasun erromantikoaren gaiarekin. Eta bideo hau ere interesgarria da (hori bai, gaztelaniaz da): Briqitte Vasallori egindako elkarrizketa.

3.

4. Adibide batzuk ikusiko ditugu. Federico Moccia idazle italiarrak 2006an argitaratutako *Ho voglia di te* (*Zure gogoz nago*) liburuak eragindako fenomenoaz mintzatu gaitzke. Liburuko protagonistek giltzarrapo bat lotzen dute Erromako zubi bateko barandan, euren maitasunaren ikur moduan, eta giltza uretara botatzen dute. Liburu horren eraginez, munduko toki askotako barandak giltzarrapoz betetzen hasi ziren. Italiako hainbat zubitan barandak puskatu ere egin ziren, pisuarekin, eta giltzarrapoak jartzea debekatu zuten.



- Zer sinbolizatzen du giltzarrapoak?
- Ikusi al duzue halakorik inon?
- Keinu erromantikoa al da, maitasuna erakusteko modu bat?
- Zer maitasun mota da (zu eta ni elkarrekin betirako, maitasunak denarekin ahal du)?

Komeni da argitzea maitasuna adieraztea eta erromantikoa izatea ez dela txarra, berez, kontua ez dela erromantizismo usaina duen guztia baztertzea, "txepelkeria" dela pentsatuta. Maitatzea gauza ederra da, eta maite duzun horri opari opari bat egitea edo hitz ederrak esatea ere bai. Maite duzuna ondo

tratatzea, harekin detaileak izatea... ona da (bikotekidea ez denean ere bai: lagunak, familiartekoak... harreman guztiak zaintzea komeni da, elkar zaintzea).

Gaztelaniazko pare bat abesti matxista entzun ditzakegu, oso adibide argiak direnak (frantsesez, ingelesez edo beste hizkuntza batean dauden beste batzuk ere aukeratu daitezke, modan daudenak, nahi izanez gero). Hona hemen adibide batzuk: Maluren Toda, Amaralen Sin ti no soy nada, Kevin Roldanen La muda, Andy & Lucasen Celos, Shakiraren Ciega-sordomuda, Salva & Efexxen Si te vas, Jeniffer Lopezen El anillo, Prince Royceren Tu principe, Enrique Iglesiasen Yo sin ti, Marina Yersen Fiera, Coque Mallaren No puedo vivir sin ti, Pablo Alboranen Solamente tú... Letra inprimatuta eman daiteke edo pantailan ipini, eta guztien artean komentatu, iritzi-trukea sustatuz.



Doble check film laburra ere ikus daiteke. Edo Love telesailaren zatitxo hau. Eta iritziak partekatu.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.
- *"Hitzen arrastoa"*. Hitzen arrastoa jarraitzea proposatzen dugu. Maitasunari buruz asko hitz egin, abestu, idatzi eta filmatu da, eta maitasun erromantikoaren adibideak ekarriko ditugu gelara. Ipuinak, liburuak, abestiak, pelikulak edo serieak izan daitezke. Bakarka edo binaka egiteko lana izan daiteke.

Aukeretako bat euskal maitasun abestiak aztertzea eta haietan maitasun erromantikoaren zantzuak (bestea gabe ezin bizi ahal izatea, betiko maitasunaren ametsa, maitasuna berdin sufrimendua...) identifikatzea izan daiteke. Ikasle (bikote) bakoitzak bat azter dezake, eta gero gelan partekatu. Hona hemen maitasun abesti batzuk:

Mikel Markez, <u>Zure begiek</u>	Ken zazpi, <u>largia</u>	Latzen, <u>Laztana</u>
Kai Nakai, <u>Zalantzarik ez</u>	Lor, <u>Zure doinua</u>	Akelarre, <u>Zure ondoan</u>
Enkore, <u>Airea</u> eta <u>Muxurik muxu</u>	Berri txarrak, <u>Ikusi arte</u> eta <u>Bueltatzen</u>	Larrabetzuko sorginak, <u>Ipuinetako erregiña</u>
Zea Mays, <u>Sutan</u> eta <u>Negua joan da ta</u>	<u>Hertzainak</u> , <u>Aitormena</u>	Su ta Gar, <u>Zure albotik urrun banago</u> eta <u>Itxaropena</u>
Gozategi, <u>Nirekin</u>	Anje Duhalde, <u>Maitasun aroak</u>	Bilintx, <u>Triste bizi naiz eta</u>
Hertzainak, <u>Zoratzen naizela</u>	Kherau, <u>Nirekin ez bazaitut</u>	Beti Mugan, <u>Aingura</u>
Alaitz eta Maider, <u>Amets bat</u>	Hemendik at, <u>Eskutitza</u>	Hesian, <u>Behar zaitut</u>
Bilintx, <u>Behin batian Loiolan</u>	Errobi, <u>Zuretzat</u>	Gatibu, <u>Zeu zeu zeu!</u>
Nekez, <u>Iragana</u>	Egan, <u>Maitasun hitzak</u>	Antton Valverde, <u>Maitasunez hil</u>
Negu Gorriak, <u>Amodiozko kanta</u>	Gontzal Mendibil, <u>Nire bihotzak zure begiak ditu</u>	Esti eta Mikel Markez, <u>Maitasun kanta bat</u>



Ipuinak ere azertu daitezke, klasikoak zein modernoak, Disney ipuinak, besteak beste: *Errauskine*, *Loti Ederra*, *Sirenatxoa*, *Aladin*... Eta baita liburuak ere. Eta telesailak, filmak, sare sozialetako bideoak (Tiktok-ekoak, adibidez), telebistako iragarkiak...

Aukeratutakoa aztertu ondoren, gelakideekin partekatuko dute, ozenki:

- Zer aukeratu dut?
- Zergatik aukeratu dut?
- Zer lotura du maitasun erromantikoaren mitoeekin? Zer hitz eta esaldi erabiltzen dituzte (adibidez, "zu gabe zertarako bizi")?
- Erakutsi (abestia, ipuina, bideo laburra, iragarkia, telesailaren/pelikularen zatitxo bat...)
- Iritzia eman
- Iritzia eskatu gelakideei

Aurkezpenetan agertzen diren esaldiak arbelean apuntatzen joan gaitezke, jasotzen ditugun mezuez jabetzeko.

- *"Sormena lagun"*. Sormena elikatzeko garaia da. Proposamena: ipuin bat edo abesti bat asmatzea edo moldatzea. Helburua: maitasun erromantikoaren mitoei aurre egitea, maitasun askea bultzatzea. Banaka edo binaka egin daiteke.



Bidea errazteko, proposamen batzuk:

- a) **Ipuinak**. Asmatu ipuin bat, topikoetatik ihes egiten duena, maitasun askeari buruzkoa (adibidez, printzesa izan nahi ez duen eta pirata bihurtzen den neskatoarena). Eskema klasikoa erabil dezakegu:

- **Hasiera**: pertsonaia batzuk, leku bat eta egoera bat deskribatu
- **Korapiloa**: arazo bat, gertaera batzuk azaldu
- **Bukaera**: istorioa ixteko modu bat

Edo, bestela, betiko ipuin klasikoak aldatu ditzakegu: *Txanogorritxo, Edurnezuri, Loti ederra, Ederra eta piztia...* Loti ederra itsusia izan daiteke, Txanogorritxo otsoari adarra jotzen dion makarra bat... erabili irudimena!



Iturria: [Facebook](#)

Beste ipuin/abesti baten bertsioa ere egin daiteke. Adibidea: [Mariziprittinek ez du zorioneko galeperrik jan nahi](#). Jatorrizkoa gaztelaniaz da, baina euskaraz ere argitaratu zuten. Ikasleek gauza bera egin dezakete beste hizkuntza batzuetan argitaratu diren ipuinekin. Euskaraz kontatu ditzakete. Adibiderako, ikusi [Yo voy conmigo](#) ipuina edo [Ranilda](#) igelarena.

Ipuinak prest daudenean, ahozketasuna landuko dugu: ipuinak irakurri edo kontatu.

- **Irakurketa ozena.** Ipuina ozenki irakur daiteke. Pako Eizagirrenen azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita irakurketa ozenean: *Testua ezagutu eta barneratu* (00:30-01:40). Posible da baita ere ahotsa audioan/bideoan grabatzea, eta gero irudiekin batera erakustea.
- **Kontaketa.** Ipuina kontatu egin daiteke. Horretarako, *Nola kontatu ipuin bat?* bideoa ikustea eta bertan proposatzen diren teknikak erabiltzea gomendatzen dugu.

- b) **Abestiak.** Asmatu abesti bat, maitasun erromantikoaren mitoei kontra egingo diena. Bertsoak edo rapa ere izan daitezke. Hona hemen adibide batzuk: *Printzesak eta printzeak*, *Rimmel*, *Dena*, *Ipuinik ederrena* eta *Denok zu*.

Abestia asmatzeko, "ideia ekaitza" egitea proposatzen dugu, maitasun erromantikoaren mitoaren kontrako esaldiekin (adibidez, "Zu gabe ere zoriontsua naiz", "Alergia diet printze urdinei"...).

Posible da baita ere abestiei letra aldatzea. Adibiderako, ikusi Las insumisas taldearen bertsoak: *Sin ti no soy nada* abestiaren bertsoa: *Sin ti liberada* eta *Toda* abestiaren bertsoa: *Solas*. XL taldekoek, berriz, Barricadaren *No hay tregua* abestiaren bertsoa egin zuten: *Maldito Walt Disney*.



Banksyren grafitia. Iturria: *Hala Bedi*

Beste aukera bat: beste hizkuntza batzuetan sortutako abestien euskarazko bertsoak egitea. Ideiak hartzeko, hona hemen adibide batzuk: La Otraren *Contigo*, Tremenda Jauriaren *Esta noche*, Buikaren *Jodida pero contenta*, Vulpessen *Me gusta ser una zorra* eta Puro Luegoren *Moñerías*.


Sortutako abestiak kantatu egingo dituzte gero, gelakideekin partekatu. Horixe litzateke onena. Beste aukera bat: bideoan grabatu, eta bideoa gelan erakustea.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Zer iritzi dauka jendeak maitasunari buruz? Eta maitasun erromantikoari buruz? Proposamena: kalera irten eta galdetzea.

Galdetegia guztien artean presta dezakete eta gero 2-3 laguneko talde txikietan egin lana.


Bi eratako galderak egin daitezke:

- a) **Iritziak jasotzeko galderak.** Adibidez:



Bideoan grabatuko dute (sakelako telefonoarekin). Kalean egin dezakete. Ezagunei galdetzea da beste aukera bat (aurrez erabaki bideoaren erabilera zein izango den: gelan soilik erabiliko den, sare sozialetan zabalduko den...). Erantzun onenak aukeratu eta bideoa editatzea izango litzateke onena, minutu bat eta bost minutu bitarteko bideo bat osatzeko. Bideoak gero gelan erakutsiko dira, zer-nola-zergatik egin den azaltzearekin batera.

- b) **Inkesta erako galderak,** bai/ez/batzuetan erantzunekoak. Adibidez:



Zer jaso nahi den ondo pentsatzea ere inportantea da, zer jakin nahi dugun eta zergatik. Kasu honetan ez dago grabatu beharrik. Erantzunak anonimoak izango dira. Hori bai, erantzunak apuntatzeko txantiloiak prestatuko dira. Bertan, erantzun duenaren adina eta sexua agertzea komeniko litzateke. Adibide bat:

1. galdera	BAI	EZ	Batzuetan	Neska	Mutilla	0-25 urte	25-45 urte	45-75 urte	> 75 urte
	X			X		X			
		X			X				X
	X				X			X	




Emaitzekin ehunekoak atera daitezke: adibidez, "galdetutakoen ehuneko 40ak ospatzen du San Valentín, gazteen artean ehuneko 30ek". Grafikoak eta gaztatxoak ere egin daitezke.

Kale inkesta. Iturria: [Twitter](#)

Taldetxo bakoitzak jasotakoaren emaitza esanguratsuenak gelakideekin partekatuko ditu, ahozko azalpenen bidez. Guztiek jasotako emaitzak bateratzea ere interesgarria izango litzateke, eta, esanguratsuak baldin badira, ikastetxean eta herrian zabaltzea.

7. *Gaia*: Praktika feministak. Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/praktika-feministak>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa praktika feministei buruzkoa dela aipatuta:

- Feminismoa modan jarri da azken urteetan. Zer da 'feminismoa' zuentzat?
- Zer da 'feminista' izatea? Zer egiten dute feministek?
- Feminista izateko modu asko daude. Zenbat praktika feminista daude eta nolakoak?
- Zer pentsamendu, talde, korrante... ezagutzen dituzue feminismoaren barruan? Zer borroka? Aipatu batzuk.
- Feminismoa praktika kolektiboa da ala jarrera indibiduala ere izan al daiteke? Eman iritzia.
- Zer da 'feminismo erradikala'?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu. Bideoan agertu diren praktikei buruz hitz egingo dugu:

- 'Praktika feminista kulturalak' aipatzen dituzte bideoan. Aipatu zuek ikusi edo entzun dituzuenak (antzezlanak, liburuak, ikuskizunak, bertso-saiok, abestiak...).
- 'Sexualitatearen askapena' da borroketako bat: bollera taldeak, adibidez. Ezagutzen duzue baten bat?
- Feminismo 'politikoak' ere badaude: feminismo abertzalea eta feminismo sozialista, adibidez. Gaur egun puri-purian daude biak. Zein dira batzuen eta besteen aldarrikapenak? Zer desberdintasun dago bien artean?
- Gazteen begirada desberdina al da? Gazte feministek zer dute/duzue eskaintzeko? Bota iritziak.
- Feminismo dekoloniala edo antirrazista ere indarrean dago azken urteotan. Zapalkuntzak batu egiten al dira (emakumea + arrazializatua + pobrea)? Zer zapalkuntza jasaten dituzte?
- Feminismoak antikapitalista eta ezkerrekoa izan behar duela diote bideoan. Ados al zaudete? Zergatik ezin da eskubikoa izan?
- Josebek dio erakundeetan egiten dena ez dela aski eta "berdintasunaren feminismoa" deitzen dio... Zergatik esaten du hori?
- Zer da feminismo erradikala?

Posible da ikuskizun bat, liburu bat, antzezlan bat... feminista izatea feminista dela esan gabe ere: egiten dugun guztian betaurreko moreak jantzita izatea, alegia. Zeharlerroa izatea.



Kanpainako irudia. Iturria: [Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza](#)

Transfeminismoa ere aipatzen da bideoan. Transfeminismoak ertzetara begiratzen du: baztertutako gorputz guztiak hartzen ditu aintzat eta 'emakume tradizionala' auzitan jartzen du subjektu politiko gisa (emakumea* erabiltzen dute, izartxoarekin).



- "*Emakumeak eta beste gorputz batzuk*", dio Kattalin Minerrek. Zer gorputzez ari da (genero ez-bitarra, intersexualak...)?



- Kattalinek dio historikoki transfobiak ez duela tokirik izan Euskal Herriko mugimendu feministan, baina badaude neska transak onartzen ez dituzten talde batzuk ere. Ba al dakizue zer argudio erabiltzen dituzten? Zer iritzi duzue horri buruz?

Transfeminismoarekin lotuta, [Trans izatea](#) bideoa ikus daiteke (proposamen pedagogikoak ere baditu) eta LGTBIQ+ kolektiboa osatzen duten taldeak ezagutzeko bideoa ere bai: [LGTBIQ+](#). Feminismoaren historia ezagutzeko, berriz, Euskal Herrian hastapenak nolakoak izan ziren jakiteko, [Mugimendu feministaren hastapenak](#) bideoa ikus daiteke.

Zertzelada batzuk, oso gainetik bada ere (kontzeptu bakoitza konplexua da eta ertz asko ditu):

Feminismo erradikala. Patriarkatuak sortzen dituen ezberdintasunak errotik desagerraraztea helburu duen korrontea, arraza, klasea eta sexu-joera kontuan hartzen dituen. Gizartearen goitik beherako berrantolaketa proposatzen du; besteak beste, generoen deuseztapena. AEBn sortu zen 1960ko hamarkadan. Frantzia zabaldu zen gero, eta Euskal Herriko lehen talde feministek batez ere handik edan zuten. Iratxe Retolazak zer den azaltzen du [pasarte honetan](#). Feminismo erradikalaren barruan ez dago ikuspegi bakarra: Medeak talde transfeminista feminismo erradikalean kokatzen da, baina badago feminismo erradikalaren izenean trans emakumeen kontra agertzen denik ere (baita Euskal Herrian ere).



Berdintasunaren feminismoa eta desberdintasunaren feminismoa.

Gizon eta emakumeen berdintasuna aldarrikatzen duen korrontea da 'berdintasunaren feminismoa': berdintasuna legearen aurrean eta gizarteko alor guztietan. Adibidez, erakunde publikoetan emakume/gizon kopurua parekatua egotea. Korronte honi 'desberdintasunaren feminismoa' kontrajartzen zaio, neurri batean: diotenez, helburua ez da emakumeek gizonak egiten dutena eta haiek egiten duten moduan egitea; beste eredu batzuk sortzea aldarrikatzen dute. Badago bi lan-ildoak uztartzen dituenik ere: berdintasunaren feminismoa desberdintasunean.

Transfeminismoa. Bereziki emakume transek gidatzen duten mugimendua (baina genero-sistemaren aurka dauden beste hainbat gorputz ere barne hartzen dituen, 'genero ez-bitarra' adibidez): beren askapena emakume guztien askapenarekin bat datorrela defendatzen dute. Emakume-gizon sistema binarioa auzitan jarri, eta identitate aniztunak defendatzen dituzte. 1990eko hamarkadaren amaieran sortu zen transfeminismoa, AEBn, eta Euskal Herrian Medeak taldeak bultzatu zuen, 2000. urtetik aurrera (Kattalin Miner eta Josebe Iturrioz talde horretakoak izan ziren).

Feminismo dekoloniala. Hego Ameriketara sortu zen (Argentina, Guatemala, Mexiko, Bolivia...) eta Eurozentrismoa kritikatu du. Kolonizatzaile zuriek sortutakoari 'feminismo koloniala' deitzen diote. Berena, berriz, 'dekoloniala' edo feminismo antiarrazista izango litzateke. Lehentasuna sexu-/genero- klase- eta arraza-gatazkei ematen diete.

Zapalkuntza-gurutzaketa. Zapalkuntzak gurutzatu eta batu egiten dira, eta horrek, kasu-kasuan, borroken lehentasuna aldaraz dezake. Sexua, adina, arraza, sexu-joera, sexu-nortasuna, klase soziala, ikasketa-maila, jatorria/bizitokia... Hainbat faktorek eragiten dute gurutzaketa horretan. Herri zapaldu bateko neska gazte zuriak eta Afrikatik datorren neska gazte pobreak ez dituzte arazo berak izango.

Aipatzekoa da badaudela bideoan agertzen ez diren beste praktika feminista batzuk ere: ekofeminismoa, feminismo komunitarioa...

3. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.
- *"Gaur egunera begira"*. Euskaraz egiten diren praktika kultural feministak ezagutuko ditugu. Bilatu, ikertu eta aurkeztu. Banaka edo binaka egin daiteke.

Bidea errazteko, hona hemen adibide batzuk:

- Musika-talde feministak (Alarma Morea, Alargun Beltzak, batukada feministak...)
- Bertso-saio feministak ("Señora" bertso-sariketa, Bollo bertso-saioak, Ez da kasualitatea, Orainmenean...)
- Antzezlan eta ikuskizun feministak (adibidez, Magma Mia, Erradikalak ginen, Futbolariak eta printzesak, 7ak bat, Erlauntza...)
- Irakurketa feministako taldeak, literaturazale feministen topaketak
- Antzerki feministako laborategiak eta zapalduen antzerki-taldeak
- Emakumeei buruzko erakusketak eta dokumentalak



Señora Bertso Sariketako parte-hartzaileak. Iturria: bertsoa.eus

Kirol praktika feminista ere izan daiteke. Adibideak: Emakumea Surflari ekimena, Emakumea Piraguista ikastaroak, Lilatoia, emakumeen pala-txapelketak...



Emakumea Surflari proiektua. Iturria: [Emakumea Surflari](#)

Ikasle (bikote) bakoitzak praktika feminista bat aukeratuko du, interesgarria iruditzen zaiona, eta hari buruzko informazioa bilatuko du. Ondoren, laburpen bat egin eta aurkezpen txiki bat prestatuko du; ahal dela, argazki bat edo bideo zatitxo bat ere erakutsiko du.


Ahozko aurkezpenen ondoren iritzi-trukerako aukera eskainiko da.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Militante feministak elkarrizketatzea eta haien esperientziak jasotzea proposatzen dugu, haien praktika feministen nondik norakoak, hain zuen ere. Gazteak edo adinekoak izan daitezke, ezagunak edo hasiberriak. Galdetegia gelan prestatu daiteke, guztien artean.



Ainara Sarasketa, Azkoitiko militante feminista. Iturria: [Maxizatzen](#)

Beste aukera bat kalean pertsona desberdinei –emakume zein gizon– galderak egitea da. Adibidez:



Elkarrizketak bideoan grabatuko dira (sakelakoarekin egin daiteke) eta ondo legoke gero pasarte onenak aukeratu eta bideoa editatzea. Bideoa gutxienez 2 minutukoa izango da eta gehienez 10 minutukoa. Hona hemen grabazioak egiteko kontuan har ditzaketen [jarraibide orokorrak](#).

Ikasle (taldetxo) bakoitzak egindako lana ikaskideekin partekatuko du, ahoz. Prestatutako bideoa erakutsiko du eta prozesua nolakoa izan den azalduko du. Bukaeran, jasotakoaren gainean iritzia eman eta eskatuko du.

- *"Historia egiten"*. Ikasleak ikertzaile bihurtuko dira. Feminismoan lan-ildo, pentsaera eta borroka ugari daude, eta jatorria Euskal Herritik kanpo dute ia denek. Feminismo erradikala, berdintasunaren feminismoa, desberdintasunaren feminismoa, feminismo marxista, feminismo abertzalea, transfeminismoa, feminismo antikapitalista, feminismo dekoloniala, ekofeminismoa, feminismo liberala, feminismo anarkista, feminismo antimilitarista...

Ikasleek historian zehar egon diren korrante feministak zein diren aztertuko dute eta, ondoren, bakoitzak bat aukeratu du (bakarrik edo binaka egin ahal izango dute), ikertu, laburpena egin eta ikaskideei azaltzeko.

- Non eta nola sortu zen? Zergatik? Zein zen testuingurua?
- Nor izan ziren bultzatzaile nagusiak edo ezagunenak?
- Zer aldarrikatzen du?
- Zer bilakaera izan du?
- Euskal Herrian ba al du jarraitzailerik?
- Iritzia eman

Posible da baita ere feminismoaren historiaren aldi bat aukeratzea. Adibidez, boto-eskubidearen aldeko borroka AEBn edo Erresuma Batuan.



Emakumearen boto-eskubidearen aldeko borroka Erresuma Batuan. Iturria: [Twitter](#)

Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, egindako lana ezagutarazteko; argazkiak erabiltzen badituzte, hobeto, erakargarriagoa izango baita.

8. Gaia: Mugimendu feministaren hastapenak Euskal Herrian. Historia

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/feminismoaren-hastapenak>

The screenshot shows the website interface for 'Feminismoaren hastapenak'. At the top, there's a navigation bar with 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materialia', and 'Euskalkategoria'. Below the navigation, the title 'Feminismoaren hastapenak' is displayed. A paragraph of text follows: 'Nola hasi zen mugimendu feminista Euskal Herrian? Zein zen emakumearen egoera orduan? Iparraldean eta Hegoaldean egoera oso desberdina zen. Orduko protagonistak eta feminista adituak elkarriketatu ditugu, feminismoaren hastapenak ezagutzeko (1974-1981)'. Below the text is a video player showing a woman speaking. To the right of the video, a sidebar contains the following information:

- Maila:** DBH
- Proiektuak:** EHA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaiak:** Genero-bardintzauna, Sikideta
- 0** puntu 3 gerturako markosik
- 0** iruz gerturak

Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu:

- Ezagutzen al duzue feminismoaren historia?
- Noiz eta nola hasi zen garatzen feminismoa Euskal Herrian?
- Zein zen emakumearen egoera frankismo-garaian?
- Ezagutzen al duzue emakume feminista aitzindaririk? Bota izenak.
- Ezaguna egiten al zaizue Basauriko 11 emakumeen epaiketa?
- Eta abortuaren alde egin ziren kanpainak?
- Ba al dakizue Dibortzioaren Legea zer urtetakoa den?

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- 70eko hamarkadatik hona aldaketa handiak egon direla iruditzen al zaizue?
- 1968ko maiatza aipatzen dute bideoan. Ikasleek eta langileek Parisko kaleak hartu zituzten. Zer gertatu zen?
- Ipar Euskal Herrian emakumeek 1975etik aurrera abortatzeko eskubidea zuten. Hegaldean, berriz, urte askotako borroka izan zen. Ba al dakizue zein den egoera orain?
- Bere buruaz beste egin zuen neska gazte batek Donostian. Ez zen bakararra izan. Zer sentitzen duzue hori jakinda? Iritziak partekatu.
- Zer iruditzen zaizue abortuaren alde egin zen mugimendua? Zuek sinatuko al zenukete "Nik ere abortatu dut" dokumentua? Zergatik bai/ez?
- Aurrera al goaz beti? AEBn Abortuaren Legea indargabetu dute 2022an...
- Ba al dakizue zer gertatu zen Basauriko auzipetuekin (azkenean indultatu egin zituzten, 1983an, hainbat jirabiraren ostean)?
- Adulterioagatik kartzelan zeuden emakumeak aipatzen dira bideoan. Emaztea fidela ez baldin bazen zigorra zeukan... senarrak, ordea, ez. Zer iruditzen zaizue?
- Zer iritzi duzue frankismoan emakumeak zuen egoeraz? Kontatu al dizuete halakorik etxean (gurasoek, aitona-amonek...)?
- Lola Valverdekin esaldi indartsu bat dakar: "Mujer, tu hogar es tu cárcel, tus hijos tus cadenas y tu marido el carcelero". Komentatu.
- 1977ko jardunaldi feministetan 3.000 emakume elkartu ziren. Kopuru handia iruditzen al zaizue?

Bideoan agertzen diren emakumeei buruz ere hitz egin daiteke. Ea norbait ezagutzen duten. [Iratxe Retolaza](#) eta [Miren Aranguren](#) *Gure genealogia feministak* liburuaren egileak dira.

Bideoan agertzen ez diren beste gertaera batzuk: 1978an UEUn bi asteko ikastaroak egin zituzten feminismoaz, Iruñean, eta urte berean emakume zinemagileen zikloa, Donostiako Zinemaldian. Miren Garmendia ibili zen UEUko ikastaroak antolatzen ([pasarte honetan](#) kontatzen du). 1977ko Leioako Jardunaldiak bultzada handia izan ziren jarduerak antolatzeko. Jardunaldi horietan erabaki zuten baita ere Euskal Herri mailako asanblada sortzea, mugimendu feminista bateratzeko.



1977. Leioako jardunaldi feministen osteko festa, kalean. Iturria: [Picara Magazine](#)

Abortua baimendu zuen lehenengo legea 1985koa da Hego Euskal Herrian (Iparraldean 1975koa; 12 astera arte, emakumeek eskatzen baldin badute): bortxaketa-kasuetan, emakumearen bizitza arriskuan egonez gero edo fetuak malformazioen bat zuen kasuetan. 2010ean legea aldatu zuten: ordutik abortua legezkoa da 12 astera arte, bortxaketa baten ondorioa baldin bada, eta 22 astera arte emakumearentzat kalte fisikoak edo psikologikoak baldin badaude. 2015ean adingabekoen abortatzeko eskubidea gehitu zuten legean. Antisorgailuak, berriz, Iparraldean 1967tik zeuden baimenduta. Hegoaldean 1979ra arte debekatuta egon ziren (horrek haurdunaldi kopuruan dituen ondorioekin) eta emakume asko Iparraldera joaten ziren errotera, ezkutuan.

1976an *El País Semanal* aldizkarian [erreportajea](#) atera zuten abortuari buruz. Espainiako Auzitegi Gorenaren datuen arabera, urte hartan estatuan 300.000 abortu klandestino egin ziren eta 3.000 emakume hil ziren.

Oraindik orain abortuarena gai konplexua da, munduko hainbat tokitan eztabaida handiak pizten dituena (AEBn Abortuaren Legea bertan behera utzi zuten 2022an).

Hona hemen kronologia txiki bat:

- 1968. Maiatzeko iraultza Parisen
- 1970. Burgosko prozesua (ETAko 16 kideren epaiketa) salatzen emakume martxa Hendaiatik Behobiara
- 1972. Bobignyko prozesua, abortatzeagatik epaitutako 16 urteko neska
- 1974. Iparraldeko talde feministen sorrera
- 1975. Francoren heriotza. Txiki eta Otaegiren fusilamenduak. Emakumearen nazioarteko urtea. Abortuaren Legea Frantzian. Emakumeak legez gizonaren menpe egoteari utzi zion Espainian.
- 1976. Hegoaldeko talde feministen sorrera. Basaurin 11 pertsonaren atxiloketa abortatzeagatik.
- 1977. Leioako I. Jardunaldi Feministak (3.000 emakume)
- 1978. UEUn ikastaroak feminismoaz Iruñean. Zinemaldian emakume zinegileen zikloa Donostian. Antisorgailuak saltzea/erostea baimendu zuten. Emaztearen adulterioa despenalizatua.
- 1979. Basauriko 11 emakumeen epaiketaren hasiera (bukaera 1985ean). Boto-eskubidea guztientzat (gerraosteko lehen udal hauteskunde demokratikoak hegoaldean; emakume politikariei buruzko dokumentala: Haziak).
- 1981. Dibortzioaren Legea. Homosexualitatea despenalizatua.
- 1984. Bigarren jardunaldi feministak.
- 1985. Abortuaren Legea (kasu batzuetarako bakarrik; 2010ean zabaldu zuten)

Kronologia horretan gertaera asko falta dira. Gehiago jakiteko, besteak beste Gure genealogia feministak liburua kontsultatzea gomendatzen dugu.

Basauriko prozesua. 1976. urtean 11 pertsona atxilotu zituzten Basaurin, 10 emakume eta gizonezko bat, abortua praktikatzeko edo abortatzen saiatzeko. 12 urte arteko kartzela-zigorrak jaso zituzketen. Mobilizazio handiak izan ziren, eta epaiketa behin eta berriro atzeratu zen. 1979an 3.000 pertsona batu ziren Bilboko epaitegiaren aurrean (urte horretan "Nik ere abortatu dut" sinadura-bilketa masiboa ere egin zuten), eta, protesten ondorioz, epaiketa bertan behera geratu zen. 1982an egin zuten epaiketan absolbitu egin zituzten, baina fiskalak errekurtsioa jarri zuen eta prozesua

luzatu egin zen. 1985eko Abortuaren Legea neurri batean prozesu honi zor zaio. Hona hemen [Las 11 de Bilbao](#) dokumentala eta [Podcasta](#).

1968ko maiatzeko iraultza. Paris izan zen matxinadaren hiriburua. Lehendabizi unibertsitarioak atera ziren kalera eta langileak gero. Vietnameko gerraren aurkako ekintzaile batzuen atxiloketa izan zen abiapuntua, baina beste arazo batzuk ere bazituzten: masifikazioa unibertsitateetan, langabezia, poliziak protestei eman ohi zien erantzun bortitza... Sistema kapitalista, gizartea bera, iraultzeko gogoia zuten gazteek. Zerbait berria sortzeko gogoia. Dena zegoen auzitan: hezkuntza-sistema, familia, autoritatea... Pragako ikasleek sobietarren tankeei aurre egiten zieten bitartean, Pariskoek Marx,



Iturria: [Gaztezulo](#)

Mao edo Che Guevararen erretratuz bete zuten Sorbona unibertsitatea. Autogestioaren garaia zen. Feminismoarena. Sexu-iraultzarena. Epizentroa Parisen zegoen, baina txinparta kontinente guztietara zabaldu zen: gazteak agintearen aurka eta utopiaren alde. Gehiago jakiteko, irakurri [Gaztezuloko erreportaje hau](#).

Feminismoaren gaien sakontzeko eta gaur egunera begira jarrita, [Praktika feministak](#) bideoa ikus dezakegu.

- 3. Lehenago zer?** Begirada txiki bat eman diezaiokegu 1936ko gerraren aurreko urteei. Mugimendu feministaren hastapenak 70eko hamarkadan kokatu arren, aipatzekoa da aurretik ere izan zela emakumeekin lotutako askapen prozesurik Euskal Herrian. Bestek beste, alderdi jeltzalearen barruan



EABko emakume bat mitina ematen.

Iturria: [Bizkaiko Foru Aldundia](#)

1922. urtean sortutako [Emakume Abertzale Batza](#) aipatu daiteke; nahiz eta oso tradizionala izan eta emakumeek rol zehatz batzuk bete, lan handia egin zuten -lehenengo ikastolen mugimendua sortzen, bestek beste: Euzko

Ikastola Batza- eta presentzia izan zuten politikagintzan ere -emakume mitinlariak ere izan ziren- bereziki II. Errepublika garaian (1931-1936). Gehiago jakiteko, irakurri Elixabete Garmendiaren [artikulu hau](#).

II. Errepublikako urte horietan dibortzio-eskubidea eta emakumeen boto-eskubidea legeztatu ziren (gerrarekin bertan behera geratu ziren biak) eta egon ziren politikan jardun zuten emakumeak ere, baita Euskal Herrian ere. [Kaxilda](#) bezalako emakumeak (irudian) ere aipagarriak dira; donostiarra, miliziana anarkista izan zen (Donostiako jatetxe batek eta Zizurkilgo gaztetxeak 'Kaxilda' izena dute, haren omenez). [Liburua](#) ere idatzi zuten hari buruz.



Kaxilda Hernaez. Iturria: [Wikimedia](#)

Ikasleek Kaxildari buruzko informazioa bilatu dezakete, sarean, eta guztien artean haren biografia osatu eta ezagutu.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.
- *"Historia egiten"*. Ikertzea proposatzen dugu, bideoan jasotako informazioa osatzeko informazio gehiago aurkitzea, eta ikaskideekin partekatzea. Feminismoaren historia zein 70eko hamarkadako historia izan daiteke, eta baita aurrekoa edo ondorengoa ere (ikasleen interesen arabera). Bakarka edo talde txikietan egin daitekeen lana da.

Bidea errazteko, hona hemen hainbat proposamen:

a) **Gertaerak eta legeak**

1968ko maiatzeko iraultza

Bobignyko epaiketa (1972): 16 urteko neskatila epaitua abortatzeagatik

Burgosko prozesua (1970): Manifestazioa Parisen, *Behobiara emakume martxa*

Basauriko 11 emakumeen prozesua (1976-1985)

Abortuaren inguruko historia Euskal Herrian (legeak, borrokak...)

Donostiako Zinemaldian emakumeen 1. zikloa (1978)

Emazteen adulterioa eta antisorgailuak zigorgabetzea (1979)

Frankismoko neurri bat: *Zerbitzu Soziala*

Frankismoko beste neurri bat: *Ezkontzean lantegitik bota*

Emaztea gizonaren menpe edukitzeko neurriak eta Dibortzio Legea

Lehenengo talde feministak edo talde feminista esanguratsuak (bat aukeratu)



1976ko irailaren 6an Basaurin gertatutako 11 atxiloketen prozesuak eragindako Mugimendu Feministaren aldarrikapen kartela. Iturria: [Wikimedia](#)

Informazioa batu ostean, gaiari buruzko aurkezpen txiki bat prestatuko dute, ahal dela argazkiekin.

- b) **Militante feministak.** Militante feministen lana oso ezkutuan geratu da. Normalean ez dugu haien berririk izaten; batzu-batzuetan, hil ostean gertatzen da. 70eko eta 80ko hamarkadetan mugimendu feministetan jardun zuten horietako batzuek. Eta aurretik ere izan ziren, nahiz eta euren buruak 'feministatza' hartu ez (adibidez, Emakume Abertzale Batzakoak).

Emakume militante aitzindarien adibide batzuk: María de Maeztu, Madalena Jauregiberri, Polixene Trabudua, Haidee Agirre, Julene Urzelai, Sorne Unzueta, Maria Etxabe, Bittori Etxeberria, Itziar Mujika, Delia Lauroba, Tere Verdes, Balendiñe Albizu, Enpar Pineda (liburuxka, Kattalin Minerrek idatzia), Benita Asas, Kaxilda, Arantxa Gurmendi aktore feminista, Arantxa Urretabizkaia idazle feminista, Mariasun Landa idazle feminista, Miren Garmendia, Lola Valverde, Begoña Gorospe, Begoña Zabala, Marijose Molina, Begoña Amunarriz, Maria Jose Urruzola, Inaxi Otegi, Maria Luisa Ozaita, Mari Luz Esteban...



Polixene Trabudua eta Haydee Agirre kartzelan, 1933an, politikagintzan jarduteagatik. Iturria: [Euskonews](#)

Kulturgintzan edo euskalgintzan zeresana izan zuten emakume aitzindariak ere azter ditzakegu. Esate baterako: Eulalia Abaitua argazkilaria, Bixenta Moquel idazlea, Rosario Artola idazlea, Maddi Ariztia idazlea, Mirentxu Loiarde zinema-zuzendaria, Katalina Eleizegi antzerki-idazlea, Maria Dolores Agirre antzerki-zuzendaria (hari buruzko bideoa), Elbira Zipitria andereñoa (hari buruzko bideoa eta ibilbidea), Miren Jone Azurza kazetaria (Ahotsak-en elkarrizketatua), Mari Karmen Garmendia (Ahotsak-en elkarrizketatua), Elixabete Garmendia (Ahotsak-en elkarrizketatua), Miren Azkarate (Ahotsak-en elkarrizketatua), Karmele Goñi antropologoa, lehenengo ikastoletako andereñoak... zerrenda luzea osatu daiteke.

Zer proposatzen dugu? Emakume aitzindari bat aukeratu, eta hari buruzko informazioa bilatu, laburpena egin eta aurkezpen txiki bat prestatuko dute, ahal dela argazkiekin, lanaren emaitza gelakideekin partekatuzeko. Banaka edo binaka egin daiteke.

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Adineko emakumeak elkarrizketatzea proposatzen dugu, gazteak zirenean euren egoera zein zen jasotzeko. Elkarrizketatuak ez dauka militante feminista izan beharrik (baldin bada, hobeto); feminismoari eta boto-eskubideari buruz ere galdetu.



Emakumeak lehen aldiz botoa ematen, 1933an. Iturria: [Indalecio Ojanquren](#)

Galdetegia guztien artean osa dezakete. Ideiak hartzeko, emakumeen sasoi bateko egoerari buruzko bideo hauetako batzuk ikus ditzakete:

- Emakumeak eta janzkera
- Neskak eta mutilak aparte
- Emakumeen egoera lehen
- Emakumeak eta aisia
- Etxeko lanen banaketa
- Emakumea lan munduan
- Emakumeak ezkontzean lantegitik bota
- Emakumeen "soldaduska"

Binaka egin daiteke lana. Elkarrizketak laburrak izango dira eta bideoan grabatuko dituzte (bideokamera edo sakelakoa), gero gelakideei erakusteko. Grabazioa editatu egin dezakete, adibidez OpenShot programarekin (nola erabili erakutsiko zaie), pasarte onenak aukeratuta. Bideoa gutxienez 2 minutukoa izango da eta gehienez 10 minutukoa. Hona hemen grabazioak egiteko kontuan har ditzaketen jarraibide orokorrak.

Aurkezpen txiki bana egingo dute bikote guztiek, eta elkarrizketatuari buruzko datuak ere emango dituzte (izena, nongoa den, zer harreman duten harekin, etab.), bideoa erakustearekin batera.

Bideo guztietako pasarteekin bideo bakarra osatu daiteke bukaeran. Ikus-entzunezko hori ikastetxean edo herrian zabaldu daiteke. Posible da elkarrizketak gero ahotsak.eus-era eramatea ere (jarri gurekin harremanetan).

- *"Ika-mika"*, Mugimendu feministan izan diren edo dauden eztabaida batzuk ekarriko ditugu hona, eta ikasleek ere eztabaidatzeko aukera izango dute.

Gela hiru taldetan banatuko da, eta talde bakoitzak hiru gaietako bat aukeratuko du eztabaidarako. Ondoren, bitan banatu, eta taldetxo bakoitzak aukeretako bat defendatuko du (A ala B). Hiru eztabaidak ezagutuko ditugu:

- A. Militantzia bakarra ala bikoitza.** Mugimendu feministaren lehen urteetan eztabaida gogorra izan zen eta gerora ere eztabaidatu izan da. Emakume batzuek alderdi politikoetan edo sindikatuetan militatzen zuten, eta aldi berean talde feministetan. Beste batzuek, berriz, talde feministetan bakarrik. Iratxe Retolazak alzatzen du pasarte honetan. Testuingurua ere aintzat hartu behar da: ezkerreko politikari batzuek lehenengo iraultza egin behar zela aldarrikatzen zuten, eta ondoren feminismoaren aldeko borroka. Gainera, feminismoa aldarrikapen burgesa zela zioten (Lola Valverde azaltzen du pasarte honetan).

Bi jarrerak:

- a) Militantzia bikoitzaren kontra daude batzuek. Feminismoari lehentasuna eman nahi diote, ez dadila bigarren mailan eta beste borroka batzuek baldintzatuta egon. Bestela, hartzen diren erabakiak ez direla aski iraultzaileak, ez doazela arazoan erroetara (feminismo erradikala), erdibidean geratzen direla, denen gustua egin nahi delako.
- b) Militantzia bikoitzak (abertzalea, sozialista...) feminismoa aberastu dezakeela uste dute beste batzuek. Borroka asko elkarrekin gurutzatzen direla eta guztiak lotuta daudela eta kontuan hartu behar direla, diskurtsoak eraikitzeko eta ikuspegi feminista batetik aurrera egiteko. Adibidez, zapalkuntza hirukoitzaren teoria: emakumea, euskalduna eta langilea.

B. **Berdintasunaren feminismoa ala desberdintasunaren feminismoa?**

Aspaldiko eztabaida da hau ere. Emakumeentzat boto-eskubidea eskatzen zutenek gizonen pare jarri nahi zuten: gizonen eskubide berak izatea legearen aurrean eta gizartean. 'Berdintasunaren feminismoa' aldarrikatzen zuten. 70eko hamarkadan, berriz, 'desberdintasunaren feminismoa' agertu zen, esaten duena parekotasun hori ezin dela eraiki gizonezkoek eraikitako ereduak hartuta, desberdintasunetik baizik. Bi jarrerak:

- a) Gizonek eta emakumeek berdinak izan behar dute legearen aurrean eta gizartean. Emakumeak gizonak dituen eskubide berak izan behar ditu. Biologikoki desberdintasunak izan arren, gaitasun intelektual berak ditugu. Gizonezkoen pribilegioak bertan behera geratu behar dira. Adibidez: soldata-berdintasuna aldarrikatzen dute eta emakume-gizon kopuru bera botere postuetan.
- b) Feminitate berri bat eraiki behar dela diote, kultura patriarkalaren parte diren pentsamenduak albo batera utzita, gizonezkoek eraikitako ereduak iskin eginez. Beste sistema bat eraiki behar da, balio femeninoetan oinarrituta (intuizioa, zaintza, komunitatea...). Gizarte parekidea lortzeko, beste gizarte bat eraiki behar da, ez gizarte patriarkalera (botere-harremanetan oinarritua, kapitalista...) egokitu.

Berdintasunaren feminismoaren ikurra. Iturria: [Internet](#)

C. Zer egin prostituzionarekin? Espainiako Zigor Kodearen arabera, adin txikiko en prostituzioa delitua da (187. artikulua), baina helduen prostituzioa ez dago araututa: alegala izango litzateke. Ezkutuko eremu bat da, urtean diru mordoa mugitzen duen merkatua. Prostituten ehuneko handi bat baldintza eskasetan ari da lanean. Zer egin horren aurrean? Feminismoan bi jarrera nagusitzen dira:

- a) Batzuek diote prostituzioa zigortu eta desagerrarazi egin behar dela. Ez dela lana (ez dute 'lan sexuala' terminoa onartzen), emakumeen esklabotza dela. Besteak beste, puteroei isunak jartzea proposatzen dute eta prostitutei bertatik ateratzeko laguntzak eskaintzea.
- b) Beste batzuek prostituzioa legeztatzearen alde daude. Lan sexuala beste lanbide bat dela eta baldintza duinetan lan egiteko aukera eman behar zaiela. Prostitutei hitza ematearen alde daude. Jarduera bat debekatzek eta zigortzek askotan kontrako efektua izaten duela diote: itzali ordezt indarra hartzen duela, baina klandestinitatean eta baldintza are okerragoetan.

Zotz eginda erabaki daiteke taldetxo bakoitzaren rola zein izango den. Talde bakoitzak arrazoiak eta argudioak prestatuko ditu, eztabaida hasi aurretik bilduta. Hori bai, helburua ez da bakoitzak berea defendatzea bakarrik. Besteen argudioak entzuten eta akordioetara iristen saiatuko dira. Hasi aurretik, ikasleei eztabaiden ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak edo testu-antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da (ikus [Iritziak eta argudioak](#) fitxako proposamenak, [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak eta [beste adibide hau](#)), esateko modua esaten dutena bezain inportantea baita.

Hiru taldeek txandaka egingo dituzte eztabaidak. Hau da, eztabaida guztietan ikasle batzuek publiko moduan hartuko dute parte eta galderak egiteko aukera izango dute. Talde bakoitzean 'moderatzailer' bat egongo da, eztabaida gidatzen eta hitza ematen.

9. Gaia: Klase-desberdintasunak. Historia

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/klase-desberdintasunak>



Bideoa ikusi aurretik

Aurre-ezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa klase-desberdintasunei buruzkoa dela aipatuta:

- Zenbat klase sozial daude?
- Zuen ustez, zuek zer klasetakoak zarete?
- Pobreak eta aberatsak. Zuen herrian ikusten al duzue klase-desberdintasunik? Eta munduko beste toki batzuetan?
- Duela 50 urte, klase-desberdintasunak handiagoak ala txikiagoak izango ziren? Zer iruditzen zaizue?
- Zuen ustez, posible al da klase sozialik gabeko gizartea?
- Hausnartu diruaren eta boterearen arteko harremanaz.



Iturria: loquesomos.org

Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Euskalkiak ulertzeko arazoak baldin badituzte (Hondarribiko euskara, bizkaiera...), testua banatu daiteke. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Joxepak bideoan aipatzen du ezin izan zuela mutil-lagunarekin jarraitu, mutilari etxean ez ziotelako utzi, bera baserritarra eta neska zela. Gaur egun ere gertatu al daiteke halakorik?
- Pepiri ume "aberatsek" (baloia zutenek) ez zioten beraiekin jolasten uzten. Orain ikusten al duzue desberdintasunik umeen artean?
- Hondarribiko arrantzaleak eta baserritarrak "bañisten" txaletetara joaten ziren, arraina eta esnea saltzera. Baina, hala ere, ez zuten apenas dirurik irabazten. "Beti pobre". Zaila al da klasez aldatzea?
- "Pobre jaio eta pobre hil". Zer iritzi duzue elizan, hileta elizkizunetan, egiten ziren diferentziez?
- Ikastetxe batzuetan desberdintasun handiak egiten ziren ikasle "pobreen" eta "aberatsen" artean. Zer iruditzen zaizue ematen zitzaaien trataera ("las protegidas", ikasten jarraitzeko aukerarik ez...)?
- Loreak dio "Niños pobres" eguna egoten zela (berari behin hanka bereko bi abarketa eman zizkiotela)... ez al da markatzeko era bat? Gutxiago duenari ematea ondo dago, baina ezkutuan egin beharko al litzateke?
- Ezagutzen al duzue beharra dutenei laguntzen dien elkarterik? Zer egiten dute (janaria eta arropa banatu...)?
- Eta herrialde pobretuei laguntzeko egitasmorik ezagutzen al duzue?

Nola neur daiteke pobrezia? Zein dira pobrezia adierazleak? Kontzeptu batzuk argitu daitezke (ikus adibidez [Wikipedia](#)).

"Klase soziala ez dago soilik ahalmen ekonomikoarekin lotuta: pertsona horrek bizitzan izango dituen aukerak baldintzatzen ditu. Era berean, jarrera batzuk, gustu batzuk, hizkera bat eta pentsaera bat ere badakartzala esaten dute".

Egia al da? Hausnartu eta eztabaidatu.



Amona ilobekin, artoa aletzen. Iturria: [Indalecio Ojanguren](#)

Baserritarrek gutxietsita bideoa era ikus daiteke, garai bateko egoera hobeto ezagutzeko (proposamen pedagogikoak ditu). *Etorkinak eta integrazioa* bideoa ere aproposa izan daiteke.

Elkarrizketa honetan Adriana Teles brasildarra harrিতuta agertzen da medikua eta kale-garbitzailea eraikin berean bizi direlako. Artikulua irakurri, eta iritzi-trukea egin daiteke.

3. Azken ekoizpena: Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikietan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkoko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.

- *"Gaur egunera begira"*. Klase-desberdintasunak eta pobrezia gaur egun Euskal Herrian. Ikerketa egin, eta egoera zein den ezagutaraztea proposatzen dugu. Banaka edo binaka egin daiteke, eta hainbat ildo jorratu daitezke, ikasleen interesen arabera.


Nondik nora jo horretarako? Hona hemen lan-ildo posible batzuk:

- Pobreziari buruzko datuak eta bilakaera Euskal Herrian. Ikus *Gaindegia* (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia). Herriko datuak udaletxean eskatu daitezke.
- Beharra dutenei laguntzen dieten egitasmoak (aterpea, jatekoa, arropa...) eta etorkinei zein errefuxiatuei laguntza ematen dieten elkarteak (lege kontuak, lana...): adibidez, Caritas eta SOS Arrazakeria.
- Bizikidetzatza bultzatzen duten egitasmoak, esaterako *Bizilagunak* ekimena, *Munduko Arrozak*, *Aniztasuna* ikasgai...
- Pentsio duina eskatzen dutenen aldarrikapenak eta ekintzak. "Zero Pobrezia" egitasmoa...
- Kontsumo-ohitura jasangarriak, bidezko merkatari produktuak... multinazionalen aurkako protestak...
- Etxebizitza-eskubidea, espekulazioa... hainbat artikulu daude sarean arazo horri buruz.
- Kanean bizi diren pertsonen buruzko datuak. Zenbat bizi dira kanean? Zer perfiletakoak dira?
- Osakidetzako eta zaharren egoitzetako lan-baldintza duinen aldeko ekimenak.
- Pandemiaren eragina Euskal Herriko ekonomian.



Ikasle (bikote) bakoitzak informazioa bilatuko du interesgarria iruditzen zaionari buruz, eta gero ahozko aurkezpen txiki bat egingo du gelan, aurkitu duena ezagutarazteko. Adibidez, egitasmo bat, artikulu bat... laburbilduta azalduko du eta nondik atera duen esplikatuko du, bere iritzia ematearekin batera.

- *"Mundu zabalean"*. Zein da egoera mundu mailan? Zer herrialde dira pobreenak? Zenbat jende bizi da pobrezian? Nola dago banatuta munduko aberastasuna? Baldintza beretan bizi al dira Europan "pobretzat" hartzen ditugunak eta Afrikakoak? Pobrezia egunetik egunera gora doa... zergatik?



Iturria: [wikimedia](#)

Munduko mapa bat hartuko dugu abiapuntu moduan (hainbat daude, hainbat adierazle kontuan hartuta, munduko egoera erakusten duten [mapak](#). Eguneratutako bat aukeratu; [adibide bat](#)). Zein da gure egoera mapa horretan?

Ikasle bakoitzak herrialde bat aukeratu dezake, eta herrialde horri buruz informatu (bereziki ekonomiarekin lotuta). Adibidez, Turkmenistan, Kenya, India, Mexiko... Posible da baita ere ikerketa orokorra izatea: mundu mailako datuak lortzea (adibidez, X pertsonak munduko aberastasunaren ehuneko X dauka).

Herrialde pobretuei eta munduko beste toki batzuetan laguntza beharrendauden pertsonen laguntzeko egitasmoak martxan jartzen dituzten Euskal Herriko elkarteei buruzko informazioa ere bilatu dezakete. GKEak. Adibidez, [Zaporeak](#).

Aukeratu duten herrialdeari edo GKEari buruz aurkitu duten informazioarekin aurkezpen txiki bat prestatuko dute.

- *"Eman iritzia"*. Handik eta hemendik informazioa jaso ostean, nork bere iritzia sortzea komeni da, eta iritzi hori defendatzeko nork bere argudioak izatea. Atzoko eta gaurko klase-desberdintasunak eta bizitza maila izan daitezke horretarako gaia.

Argudiatze-egoeretan [3 ezauzgarri](#) hauek betetzen dira:

- Egoera/gai bati buruzko ikuspegi kontrajarriak daude
- Argudiatzaileak jarrera jakin bat hartzen du
- Jarrera hori defendatzeko arrazoiak ematen ditu

Ikasle bakoitzak iritzi-artikulu labur bat idatziko du, hedabideetan agertu ohi direnen estilokoak. Argudiatzeko erabili ohi diren testu-antolatzaileak ezagutzeko, ikus [Konbentzitzeko arquidiatu sekuentzia didaktikoa](#); hori bai, hedabideetako argudio-testuek badituzte ahozko testuek ez dituzten ezaugarri batzuk:

- **Hartzailea.** Ez dakigu hartzailearen ikuspegia zein izango den, artikulua publiko orokorrak irakur dezakeelako. Salbuespena: "Gutuna zuzendaritari" ataleko eskutitzak, pertsona/talde jakinei zuzendutakoak.
- **Ikuspegi kontrajarriak kontuan.** Gure ikuspegia argudio sorta baten bidez justifikatu behar dugu, baina kontrako argudio posibleak ere kontuan izanda (eta komeni bada, horiek ere artikuluan aipatuta).
- **Egitura.** Artikuluaren egitura inportantea da: argudioek eta azalpenek ondo lotuta egon behar dute. Hurrenkera inportantea da. Hasiera eta bukaera zaintzea komeni da (azken esaldiak/paragrafoak ideia nagusia laburbil dezake).

Adibide batzuk ikus ditzakegu (ikus "Iritzi-artikuluen ereduak" [dokumentua](#)). Irakurri eta komentatu. Ondoren, ikasleen txanda izango da. Gai bat eta ikuspegi bat aukeratu, eta iritzi-artikulua idatziko dute. Nahi izanez gero, pertsona/talde jakin bati zuzendutako kexua ere izan daiteke. Hona hemen iritzia emateko eztabaidagai posible batzuk:

- Duela 50 urte Euskal Herrian klase-desberdintasunak handiagoak ziren (ikastetxeetan, garraioetan, elizan...). Lehen agerikoakoa zen beharbada eta orain ezkutukoagoa? Berdina gertatzen al da mundu mailan ala justu kontrakoa (pobre kopurua urtetik urtera gorantz doala diote estatistikek)? Zergatik izan daiteke?
- Adineko askok diote nahiago dutela lehengo bizimodua oraingoa baino. Orain orduan baino askoz gauza material gehiago izan arren, inoiz ez gaudela konforme eta konformismo maila jaitsi egin dela. Ona al da konforme egotea? Zoriontsua izateko zer da beharrezkoa? Aberastasuna beste era batzuetara ere neurtu al daiteke?
- Pentsiodunak gutxieneko pentsio duinaren alde ari dira borrokan, etorkizunean gazteek erretiroa izan dezaten, baina manifestazio horietan gazte gutxi ikusten da. Gazte sozialistek kapitalismoaren aurka antolatu zuten manifestaziora, berriz, gazte mordoa joan zen. Zer gertatzen da?
- "Bidezko merkataritzaren alde nago, baina batzuetan denda-kate handietan erosten dut arropa edo Amazonen". "Ekologista naiz, baina ez diot uko egiten hegazkinean bidaiatzeari, nahiz eta jakin asko kutsatzen dutela". "Langile klasekoa naizela diot, baina gurasoen kontura bizi naiz". Eman iritzia gure kontraesanen inguruan.
- Erdi mailako klasekotzat dugu gehienok geure burua, baina, munduko mapa begiratuta, argi ikusten da aberatsak garela. Munduko aberatsenen ehuneko 20aren artean gaude gu ere. Zer diozu horri buruz?



Pentsio duinen aldeko aldarrikapena Andoainen. Iturria: Aurri.eus

Idatzitako iritzi-artikulua ozenki irakurriko dute ikaskideen aurrean, egindako lana partekatzeko. Ozen irakurtzeko, garrantzitsua da hitzezkoak ez diren baliabideak ezagutzea edo gogoraraztea (erritmoa, isiluneak, tonua, bolumena...). Horretarako, Pako Eizagirrereren azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan (Aittu.eus webgunearen sortzailea da): [*Testua ezaqutu eta barneratu*](#) (00:30-01:40).

ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, espazio itxietarako unean uneko osasun-neurri guztiak errespetatuta (COVID-19). Espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiak parte hartzeko aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzea.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrian eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu transmisioa dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleek ez dute epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dute, etxean bezala.

Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.



Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).

DENBORALIZAZIOA

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zer jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia didaktiko bihurtu daitezke. Fitxa pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero (azken ekoizpen bat aukeratuta), lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikusi.
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin)
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk
- 4. saioa.* Ikerketa, informazio bilketa edo lanketa, ekoizpena sortzeko (kasuan-kasuan, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke)
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu
- 6. saioa.* Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin

Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Interneterako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.
- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

MATERIALAREN EGILEAK

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkartek sortuko du, www.ahotsak.eus proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkartek hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0) aurreko urteetan ere. Kazetari eta iritzi-artikulugile moduan ere aritua da (*Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena*).
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura dauka. Edukien transkripzioekin eta proposamen pedagogikoekin lagundu du. Euskal Filologiako ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun-agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikus-entzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri-telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziaduna da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.

- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozko testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozko testuak lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

BIBLIOGRAFIA

- ALDARTE ZENTROA (2019). “Sexu eta genero-aniztasunetik eskubide sexual ez normatiboak eraikitzen”. Bilbo: Aldarte.
<https://drive.google.com/open?id=1CxxLYKeSSuXVVaLTTqmyRPAHO2LjBKtf>
- AMONARRIZ, Kike (2002). “Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran” in *IX-Jardunaldi pedagogikoak. Euskararen erabilera*. Donostia, EHIE: 417-465
- AMONARRIZ, Kike (2012). “Txisteeek euskaraz ez dute graziarik” in *Campus*. 79: 39. Leioa: EHU. https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus_79_def_web/39
- ARAOLAZA, Oier (2020). *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan*. Doktore-tesia. Bilbo: UEU.
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BASSOLS, Margargarida, TORRET, Anna M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*. Bartzelona: Octaedro ediciones.
- BELTRAN, Elena, MAQUIEIRA, Virginia (2001). *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Madril: Alianza Editorial.
- BRONCKART, Jean-Paul (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madril: Fundación infancia y aprendizaje.
- BULLEN, Margaret, EGIDO SIGÜENZA, José Antonio (2004). *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irún y Hondarribia*. Bilbo: EHU.
- De PIETRO, Jean-François, DOLZ, Joaquim (1997). “L’oral comme texte: comment construire un objet enseignable?” in *Education et recherches*. 1/1997: 335-339. Friburgo: Editions Universitaires Fribourg Suisse. <https://www.e-periodica.ch/digbib/view?pid=szb-001:1997:19::457#4>
- DIEZ MINTEGUI, Carmen (2003). *Tradiciones culturales y legitimización del poder masculino*. Bilbo: EHU.
http://www.ugr.es/~pwlac/G19_15Carmen_Diez_Mintequi.html

- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard. (1997). “Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona” in *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*. 11: 77-98. Genova: Université de Genève.
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard (1998). *Pour un enseignement de l’oral*. Paris: ESF.
- DOLZ, Joaquim, NOVERRAZ, Michèle, SCHNEUWLY, Bernard. (2001). *Séquences didactiques pour l’oral et pour l’écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3^e/4^e). Brusela: De Boeck.
- DOLZ, Joaquim, VILA, Montserrat (1997). “L’oral formal” in *Articles* 12. Bartzelona: Grao.
- EIZMENDI, Iñaki (2015). “Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena” in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91. Andoain: Sei.
- ESNAOLA, Imanol (2000). “Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa” in *HIK-HASI*. 49. Donostia: HIK HASI.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>
- ECHEVERRIA, Begoña (2001). “Privileging masculinity in the social construction of Basque identity” in *Nations and Nationalism*, 7(3). 339-363. Los Angeles: University of California. https://38c3c988-8b73-491f-a929-fcca7c086139.filesusr.com/uqd/9bbd41_0fac911a1c384282be45a784b2530f0f.pdf
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1993). *Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarriko eskubideen gidaliburua*. Gasteiz: Emakunde.
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_quias2/eu_emakunde/adjuntos/quia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf

- FORT I MARRUGAT, Oriol (2015). *Cuando danza y genero comparten escenario*. Bilbo: EHU. <https://ojs.ehu.es/index.php/ausart/article/viewFile/14406/13129>
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). "Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 96: 011-028. Andoain: Sei. https://www.academia.edu/20802637/Ahozko_euskara_ikerketarako_unibertso_bat
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* Eusko Ikaskuntza. <http://www.euskoews.com/0701zkbq/qia70103eu.html>
- GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA (2009). *Gipuzkoako lurralde historikoko jaietako buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.gipuzkoa.eus/documents/2556071/2587709/Jaiak+INFORME+eu.pdf>
- BERRITZEGUNE (2020). *Heziberri 2020*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. <http://www.hezkuntza.ejqv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- IBARRA, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: N.U.P.
- IDIAZABAL, Itziar. (1990), *Hizkuntzaren psikopedagogia. Testu motak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, Itziar, GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2007) *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- KAGAN, Spencer (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*. California: Kagan Publishing.
- LEGORBURU, Onintza. (2018). [Genero rolek hitanoaren erabileran izan duten eragina: Antzuolako herritarren diskurtso eta praktikak](#). Gasteiz: EHU
- LEON, Irati, TSVINTARNAI, Inna, MARTINEZ, Judit, GAMITO, Rakel (2019). "Genero ikuspegitik zer nolako lanketa egiten da hezkuntzan? Binarismoa eta feminismoa aztergai" in *XXV Psikodidaktikako Ikerkuntza Jardunaldiak*. 206-220. Gasteiz: EHU. https://web-arqitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=USPDF190464
- LLEDO, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Gasteiz: Emakunde.

- MEDGYES, Peter. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- NABERAN, Maialen. (2017) *Emakumeak eta kirola: badaude genero-estereotipoak Lehen Hezkuntzan?* Gasteiz: EHU - Hezkuntza eta Kirol fakultatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/25003/GrAL_Nabera%2CM.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- MUJICA, Lala, OLARTUA, Elena (2009). Familia ereduak eta gizarte aldaketa: lesbigo edo transeualez osatutako familiak. *Bilbo: Aldarte*. <https://drive.google.com/open?id=1DmRoLVQkqVWSLSDzf8iGnLjPwTnqHtH4>
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2015). *Aniztasuna besarkatzea: jazarpen homofobiko eta transfobikorik gabeko hezkuntzarako proposamenak*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu_materiales/eu_def/A_brazar-la-diversidad.pdf
- PAVON, Amaia, ZUBEROGOITIA, Aitor (2011). "Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian" in *Uztaro*. 78: 31-49. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- RAWLS, John, GABIKAGOJEASKOA, Alberto (2008). *Justiziaren teoria bat*. Pentsamenduaren klasikoak. Bilbo: Klasikoak. <http://eimakatalogoa.eus/vufind/Record/16172>
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetza-eredua egiteko gida*. I tomoa. Gasteiz: Emakunde. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_quias2/eu_emakunde/adjuntos/quia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak*. II tomoa. Gasteiz: Emakunde. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_quias2/eu_emakunde/adjuntos/quia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf.pdf
- RINCON, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde.
- SANCHEZ CARRION, José María (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.

- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011). Euskal Herriko Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketa 2011 EMAITZAK. Euskal Herriko VI. neurketa.
<https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/euskal-herriko-hizkuntza-erabileraren-kale-neurketa-2011-emaitzak-2/>
- VIZCARRA, María Teresa, MACAZAGA, Ana María, REKALDE, Itziar. (2009). *Eskolako kirol lehiaketan neskek dituzten baloreak eta beharrak*. Bilbo: Emakunde.
- ZALBIDE, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?* Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia: Ikastolen Elkartea.
- ZENBAITEN ARTEAN (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Gasteiz: Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar.
- ZENBAITEN ARTEAN (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ZUAZO, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: ELKAR



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.
2022/10/03